

# Begira

 **ULMA**

2007ko abendua // 16 zk

*U L M A Taldeak*

*jai zoiontsuak*

*opa dizkizu*

**Gure Pertsonen buruz**

aurrez aurre



**Xabier Mugarza**

*ULMA Taldeko  
lehendakaria*

ereportajea



**PRECINOX;**

*lehen sei hilabeteko  
balantzea*

# Aurkibidea

16 zk. • 2007ko abendua



**3 > HIZPIDEA...:** Gabonetako argiak eta urteberriko itzalak. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIAK:** ULMA Forja Turkiako Tutu eta Fittings azokaren 3. edizioan izan zen, Istanbulen. ULMA Handling Systems eta COFAC saritu dituzte "Logistikako Gidarien" III. Sarietan. ULMA Packagingen egoitza berria Italian. HUBTEX picking plataforma berria. **14 > AURREZ AURRE:** Xabier Mugarza: ULMA Taldeko lehendakaria. **16 > MAHAI-INGURUA:** Gure pertsoneri buruz. **21 > GUTARREN ARGAZKIAK ETA HISTORIAK:** Nicanor Valor. ULMA Construccióneko bazkidea. **22 > ERREPORTAJEA:** PRECINOX; lehen sei hilabeteko balantzea. **23 > ASTEBURURAKO TXANGOAK:** Olatz harana; Kostako bidean . **24 > ZER DERITZOZU?** **26 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK.**

BEGIRAn zenbaki hau jasotzen dugunean, Gabonetako oporretan egongo gara bete-betean, eta horrek esan nahi du beste ekitaldi bat osatua izango dugula. Kontuak egiten hasi eta balantzeak itxi arte oraindik hainbat aste igaroko badira ere, dagoeneko ziur esan daiteke, berriro ere, lorpenak eta emaitzak aski onak izango direla. ULMA Taldeko Negozio guztiek 2007ko GPan ezarritako helburu goranahiak lortuko dituzte, are gaudituko ere. ULMA Taldearen fakturazioa, oro har, 710 milioi €-tik gora egongo da, urte arteko hazkundea %20 ingurukoa izango da eta ia Negozio guztien ekarpenean bi digituren hazkundea egongo da. Gure nazioartekotzeko prozesua pauso sendoz doa aurrera, nazioarteko salmentek erakusten dutenez, ekitaldian horiek izan duten hazkundea %30 izango baita, salmenta guztien %50 inguru jada. Beste urte batez, euroaren eta dolarraren arteko parekotasunak emaitzen kontuan eragin negatibo handia izan duen arren, esan daiteke emaitzek beste errekor historiko bat ezarriko dutela. Horiek dira Gabonetako argiak, eta denok zorion dezakegu geure burua amaitzeaz dagoen ekitaldian lortuta ditugun emaitzengatik; goza gaitezen Gabonetan, har dezagun

Alderdi horiek guztiek gure lehiakortasunean eta Negozioen bilakaeran eragin nabarmena izango badute ere, ezin dugu horiek saihesteko ezer egin. Egoera horretan dago gure joko zelaia, eta azken urteotan izan dugun baino zailago bihurtuko da; hori dela eta, gure ahalmenei eta gaitasunei erreparatu behar diegu, bertan lehiatu ahal izateko; joko zelaia aldatzea ezinezko zaigunez, gure lehiakideak baino hobeto egokitze gogotik kontzentratu beharko dugu. Horrenbestez, galdera honi erantzun beharko diogu: nola lehiatuko gara? Edo, hobeto esanda: nola lehiatuko gara eszenatoki globalean? Negozioen mundua oso azkar aldatzen ari da, eta errealitatea da aldaketa handiko fase batean gaudela; ondorioz, gure prestakuntza eta moldakortasuna indartu beharko ditugu. Gaur-gaurkoz, lehiatzeko modu berria da arlo sozio-ekonomikoko maila desberdinetan azaleratzen ari den kezka, eta irtenbide edo errezetek elementu komunak azaleratzen dituzte, hau da, pertsonak, ezagutza eta berrikuntza; horiek ei dira erakundeen etorkizuna eta gizartearen ongizatea sortzeko behar diren pieza giltzarriak. Eszenatoki globalean lehiatu ahal izateko ingurunearekin batera bilakatu behar

zerbait desberdina eskaintzen dela erakutsi behar dio merkatuari eta, batez ere, berrikuntzan oinarritu behar da. Editorial honen azken lerroetan Gabonetako espiritua berreskuratu nahi nuke, Gabonen garaia desioen garaia ere badelako. Denok onena opa diogu elkarri. Zoriontasun handiagoa, osasun handiagoa, arrakasta eta elkarbizitzarako indarra. Borondaterik onenez osatutako esaldiak esaten ditugu, bihotzez, nahiz badakigun nolabait iragankorrak direla eta adiskidetasuna eta modu onak erakusteko esaten ditugula. Eskertzekoak dira, ordea, kortesiaren erritualaren parte baitira, zeinean promesaz beteriko bizitza batean gure misioa hobeto betetzeko nahia berritzen dugun. Jai giro goxo horren estalpean, BEGIRAn, ULMA Taldea den familia handi hau osatzen dugun guztion nahiak gure egiten ditugu: gure pertsonen helburu indibidualak eta kolektiboak bete daitezela, pertsona bakoitzak bere eginkizunetan norbere nortasuna garatzeko bide bat aurki dezala, behar ditugun lehiakortasun, globalizazio eta hazkunde prozesuak gauzatzeko ezinbestekoa den first class talentua geureganatu eta gara dezagula (langileak, profesionalak, zuzendariak...),



## Gabonetako argiak eta urteberriko itzalak

TXOMIN GARCÍA. ULMA Taldeko Zuzendari Nagusia.

atseden eta itzul gaitzen animoa berrindartuta, urte berriaren zerumugan ageri diren itzal handiei aurre egin ahal izateko. 2007ko ekitaldian zehar ingurune ekonomikoa nahasten hasi da, eta zalantza arrazoiak sortu dira ekonomiak azken hamarkadako oparotasun eta bilakaera positiboari eutsi ahal izango dion:

- lehenengo hotsak subprime hipoteken krisiarekin iritsi ziren, finantza merkatuetara eragin murriztailea eta mesfidantzakoa ekarri baitzuen,
- Brasil, Errusia, India eta Txinaren multzoak munduan bultzatutako hazkunde ekonomikoak, hainbat faktore geopolitikorekin batera, krisi energetikoa ekarri dute, eta horren lehenengo ondorioa (ez azkena, ordea), petrolio upelaren prezioaren igoera ikaragarria izan da eta, ondorioz, faktura energetikoa garestitzea, eta arlo horretan ez gaude gure inguruko herrialdeak baino hobeto, energetikoki menpekoak garelako,
- Espainianeraikuntzarenesektoreak inflexio handiarekin amaituko du ekitaldia, etxebizitzaren esparruan behinik behin, bolada luze batez hazkunde jarraitua izan eta gero, eta aldaketa horrek enpleguan izango duen eraginak eta, beraz, kontsumoan, ekonomia moteltzea bizkortuko du,
- inflazioaren azken datuek ere ez dute gure lehiakortasuna hobetzen lagunduko, %4,1 ingurukoa izango baita, eta seguruenik 1 puntu diferentzialarekin Europako batez bestekoarekin alderatuta.

dugu, erronka berriei aurre hartuz eta detektatzen diren aukeren aurrean azkar erreakzionatuz. Horretarako, erakunde arinak beharko ditugu, malguak eta etorkizuneko erronkekin bat eginak. Inoiz ez bezala, orain gure erakundeetako pertsonak nahi duten etorkizunari buruzko ikuspegi argia eta partekatua edukitzea behar dugu, eta eszenatoki berrian moldatzeko gaitasun egokiak. Gaitasun horiek lortzeko eta garatzeko "guzti-guztiok" ahalegin gehigarria egin beharko dugu. Orain arte nahikoa zen gauzak besteek baino hobeto egitea. Horrek behar besteko marjina ematen zigun azken urteotan jardun dugun lehiaren esparruan. Egoera ekonomikoa ez da orain dela gutxi artekoa bezain indartsua izango, lehiakideak ere gogotik ari dira lan egiten (Ekialdeko herrialdeak, Txina...), eta dagoeneko ez da nahikoa gauzak hobeto egitea. Eskulanaren kostuan duten diferentzialak abantailak ematen dizkie, eta guk bide alternatiboak bilatu beharko ditugu horiek gainditzeko. Gauza desberdinak egin behar dira, lehiakideen aurretik ibili beharra dago. Eta horrek gure negozioak espezializatzeko estrategia batera garamatza, produktu edo zerbitzu baten ezaugarri berezia baloratzen duen merkatu tarte bilatu behar da etengabe, beren beharrak edo arazoak beste proposamen batzuek baino hobeto bideratzen dituen zerbitzua edo produktua eskaintzen dugulako ordaintzeko prest dauden bezeroak bilatu behar ditugu. Espezializazioaren estrategia horrek

etorkizuneko erronketan parte hartzeko motibazioak eta ilusioak "bizimodu errazetik" alden gaitzala, erosokeria eta erronkarik eta konpromisorik ez izatea zorigaitzokoa baita gaur egun lehiatu ahal izateko, gure bezeroak gogobetetzeko orientazioak lanaren iraganeko zurruntasuna gaindiaraz diezagula, autogestio arduratsuen prozesuetan aurrera egiteko, lehiakortasunaren elementu gisa, eta beste urte batez, guretzat eta gure gizartearentzat nahi dugun etorkizuna irabazten jarrai dezagula... Finean, XXI. mendearen hasiera zinez konplexu hauetan, inoiz baino behartuago gaude etorkizuna irudimenez aurrekustera, gure antolamendu egiturak egokitzen. Eta hori guztia gure printzipioei eta balioei eutsiz. Berriro ere, eskerrik asko gure proiektu komunari, ULMA Taldeari, eskaintzen diozuen ahalegin eta dedikazioagatik. Gabon zorionsuak denontzat.

***"pertsonak,  
ezagutza eta berrikuntza;  
horiek dira etorkizuna  
eraikitze giltzarriak"***

## ULMA Hormigón Polímero Benidormeko dorrerik altuenean



ULMA Hormigón Polímero Benidormeko etxe orratzik altuena den Torre Lujanon presente dago, bere fatxada aireztatuen lerroaren bidez. Eraikin erresidentziala Levanteko hondartzako gune pribilegiatu batean dago, eta 42 solairu ditu eta 158 metro garai da. Eraikin ikusgarri hori hondartzatik goragoko mailan dago (60 metro), eta horrek eta berez daukan altuerak sekulako itxura ematen diote Benidormeko beste eraikinen aldean, nahiz eta ez den bertako altuena. Proiektua garatu ahal izateko, ULMA material desberdinez, panel arinez eta harri naturalez, fatxada aireztatuak egiten dituzten beste bi hornitzaileekin lehiatu zen. Hautaketa prozesua luzea izan zen, eta hiru hornitzaileek obran lagin bat jarri behar izan zuten; azkenean, proiektuaz arduratzen diren eraikitzaileek, hau da, ACCIONA eta EDIFESA eraikitzaileek, ULMA Hormigón Polímeroren fatxada aireztatuaren alde egin zuten. Obran jartzeko erraztasuna, prezio lehiakorra eta materialaren iraunkortasuna izan ziren ULMA aukeratzeko arrazoiak. Proiektuan hormigoi polimerozko plakak erabili dira, txuri kolorekoak eta arbel egituradunak, 110 eta 180cm zabal x 75cm garai. Guztira, obrarako hornitu den produktua 4.000 m<sup>2</sup> fatxada aireztatu izan da. Eraikinen edertasun ikusgarriak azterketa eta proba partikularrak eskatu ditu, eta ainguraketak eta ainguraketak eta zutoinak birdiseinatu egin dira. Eraikuntzako Kode Tekniko irizpiderik zorrotzenekin lan egin behar izan da, batez ere haizearen presio dinamikoa bermatzeari dagokionez, hori handia baita horrenbesteko altuera duten eraikinetan.



**KUDEAKETAREN KALITATEAREN SARIA ULMA HANDLING SYSTEMSERAKO.** Eusko Jaurlaritzak ULMA Handling Systemsi Kudeaketa Kalitatearen euskal saria eman dio –Zilarrezko Qa–, Euskalit-Kalitatearen Euskal Fundazioaren eskutik. Errekonozimendu horrek beste pauso bat esan nahi du Erabateko Kalitatearen bidean, izan ere, lehenengo ISO 9001:200 Kalitate Kudeaketaren ziurtagiria lortu zuen, ondoren OHSAS 18.001 araudiaren ziurtagiria, orain dela gutxi ISO 14001:2004 ziurtagiria eta, azkenik, Zilarrezko Qa. Estandar hau ezartzeak indarguneak eta hobekuntza behar duten arloak identifikatzea ahalbidetzen du eta, ondorioz, interes taldeen gogobetetzea areagotzeko bidea ematen du: barruko langileak, hornitzaileak eta gizartea oro har. Saria emateko ekitaldia abenduaren 20an egingo da, BECecko Bizkaia Arena Pabiloian, eta Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta hainbat sailburu eta EUSKALITeko lehendakaria den Xabier Alkorta izango dira bertan.

### ULMA Forja

#### ULMA FORJA TURKIAKO TUTU ETA FITTINGS AZOKAREN 3. EDIZIOAN IZAN ZEN, ISTANBULEN.

Azokan, ULMA Forjak bere produktuen gama osoa erakutsi zuen, bere ordezkari turkiarra den SAYTEK METALen bitartez, zeina Turkiako AYDIN BORU talde metalurgikoko kidea den. Merkatu horrek garrantzi berezia hartu du, Kaspiar Itsasoaren eta Itsaso Beltzaren inguruko herrialdeen goraldiaren ondorioz. Azoka zubi ezin hobea izan da hainbat herrialdetako enpresek in harremanak egiteko, horien artean Kazakhstan, Turkmenistan, Azerbaijan... izan ere, herrialde horietan gorakada ikusgarria gertatzen ari da gasaren eta petrolioaren sektoreari dagokionez; gaur egun, munduan herrialde horietan gertatzen ari da arlo horretako hazkunderik nabarmenena. Tamalez, herrialde horietako merkaturak batere segmentatu gabe dago eta, ondorioz, ezin dira zuzenean Oñatitiko landu, gainerako nazioarteko merkatuak ez bezala, eta horregatik da ezinbestekoa turkiar banatzaileekin lankidetzan estuan aritzea.



### ULMA Construcción

## ULMA Construcciónen produktuen eta sistemen azken nobedadeak Frantziako BATIMAT azokaren azken edizioan aurkeztu zituzten

Azaroaren 5etik 11ra, eraikuntzaren sektoreko fabrikatzaile eta profesional ugari bilduziren Parisko EXPO Porte Versailles erakustazokara. Sei egun horietan zehar, 225.000 m<sup>2</sup>-tan baino gehiagotan, 49 herrialdetatik iritsitako erakusketariak elkartu ziren, horien erdiak baino gehiago Frantzia kanpokoak. 1959az geroztik, BATIMAT Eraikuntzaren Nazioarteko Aretoak bi urtean behin deitzen die eraikuntzarako material eta ekipamenduak hornitzen dituzten enpresei, baita profesionaleri ere, Frantziakoak zein munduko gainerako herrialdeetakoak izan. Hori dela eta, ULMA Construcción ere, bere kalitate, profesionaltasun eta ongi egitearen printzipioekiko leiala denez, bertan izan da, bisitariak bere zerbitzuak eskaintzeko helburuarekin. Azokaren arrakasta argia izan da aurtengo 26. edizio honetan. Enpresa erakusketariak kopurua hazi egin da, bai autoktonoei zein atzerrikoiei dagokienez, eta horien presentzia 2.700 ordezkari ingurura iritsi da. Gainera, azoka bisitatu duten pertsonak milioi erdi inguru izan direla zenbatu da, eta horietako gehienak ez ziren joan ULMA Construcciónen stand bisitatu gabe. Edizio guztietan bezala, ULMA Construcciónek bere produktu familia desberdinetako material hautatuak erakutsi ditu, 400 m<sup>2</sup>-tan baino gehiagotan, eta bereziki erakutsi ditu bere produktu nagusiak. Lehengai horrekin, eta Departamentu Teknikoaren profesionaltasun ezagunarekin, ULMA Construcciónek bere produkturik onenak biltzen zituen standaren diseinua prestatu zuen. Oraingoan, muntaia 12 m-ko garaiera duen begiratoki bat izan da, egitura piramidal batez lagunduta, BRIO Aldamio Multinorabidekoan oinarrituta. Produktu horren moldakortasunak eta aplikazio desberdinek bisitari askoren interesa sortu dute, eta horiek aldi berean erosle potentzialak ere badira. Konposizio horri, erakusketan zintzia eta enkofratu horizontal

eta bertikal desberdinak erakutsi dira, eta horien artean nabarmen daiteke HORMA enkofratuaren gama berria. ULMA Construcciónen erakustokia, 2005ean bezala, B16 Terrazan kokatu da, eta gune horretan etengabe dabilta bisitariak, eta nazioarteko beste enpresa lehiakide askorekin harreman zuzena edukitzea ahalbidetzen du. Espazio zabala eta eroso izanik, ekitaldirako atondutako instalazioetan fabrikatzaileak, arkitektoak, kontratistak eta ingeniariak erraz elkartu dira. Bisitarien kopurua nabarmen handitu da eta, jatorri askotakoak izanik ere, Frantziako eta Afrikako iparraldeko profesionalen presentzia azpimarra daiteke. BATIMAT azokaren helburua eraikuntzaren merkaturako azken joerak eta nobedadeak ezagutaraztea da. Aurtun, azokaren gai nagusia Garapen Iraunkorra eta horrek sektorean dituen ondorioak izan da, esaterako, energiaren kontrolari dagokionez, edota segurtasunari, irisgarritasunari eta abarri dagokienez. Baina ez da ahaztu behar BATIMAT negozioa garatzeko espazioa dela, hau da, eroslearen eta saltzailearen arteko harreman zuzenak sustatzeko gunea. Ondorioz, merkaturaren hazkundera dela eta, BATIMAT 2009 Frantziako filialak antolatuko du.



## > **Albisteak eta gaur egungo gaiak**



ULMA Handling Systems

### **ULMA Handling Systems eta COFAC saritu dituzte “Logistikako Gidarien” III. Sarietan**



Logistikako Gidarien Klubak ULMA Handling Systemsi eta COFACi eman die sari gorena, automatizazio logistikoko proiekturik onena izateagatik. Bi enpresen arteko lankidetzaren oinarria ULMA Handling Systemsek Kataluniako Cooperativa Ferrertera de Cataluña-COFACen instalazioetan automatizazio logistikoa garatzeko sistema osatu bat diseinatu eta ezartzea izan da. Sariak kooperatiba katalanak automatizazio logistikoaren alde egindako apustua aitortzen du; horri esker, bazkideei eskainitako zerbitzua nabarmen hobetu da eta, ondorioz, burdingintzako konpainia multinazional handiei aurre egiteko eta lehiatzeko moduan da. ULMA Handling Systemsek garatutako soluzioek erabilgarri dagoen espazioa eraginkortasunez aprobetxatzea ahalbidetzen diote kooperatibari, biltegiko produktua erraz eskuratzea, ahalik eta errotazio mailarik handiena izatea eta biltegiko merkantzia kontrolatzea. Finean, kideei emandako zerbitzua nabarmen hobetu da eta hornidura katean eraginkortasun handiagoa lortu da. Proiektuaren zati nagusia silo automatikoan dago, eta horren ezaugarria Mini Load bat izatea da, honela osatuta: lau transjasogailu automatiko, F-300 motakoak, eta L-400 transjasogailu bat, 24.000 ontzi biltegitratzeko ahalmenarekin eta orduko 480 kaxako produktibitatearekin. Horrez gain, L-400 motako hiru transjasogailu dituen Unit Load sistema

bat dago, 7.000 paletetarako ahalmenarekin eta orduko 100 palet egiteko produktibitatearekin. Siloan Pick eta Put to Light sistemak dauzka apalategi dinamikoetan eta irteerako portaleetan, eta sailkapen automatikorako sistemak ere badauzka, sorter, bederatzi irteera kanalez osatuta. Prestaketa ahalmena egunero 12.000 lerrokoa da, eta fidagarritasuna %100ekoa. Instalazioei esker, arriskutsutzat jotzen diren produktuak gune seguru eta independenteetan biltegitara daitezke. Horri Biltegia Kudeatzeko Sistema behar zaio; sistemak irratimaiztasunez funtzionatzen du, eta horri esker biltegiko kokapenak eta produktuaren trazagarritasuna hobeto kudea daitezke, inbentarioak optimizatzen dira, irteerako pickingeko erroreak murrizten dira, stocken kudeaketa optimizatzen da, on-line lan egiteko sistemak ezartzen dira eta, oro har, erabilgarri dauden baliabideak optimizatu egiten dira. COFAC Estatuko burdindegien erakunderik handiena da, eta kide ugari ditu Estatu osoan zehar. COFAC establezimenduak, beren produktu gama zabala eta irudi korporatiboa direla eta, erreferentzia dira burdinkien munduan. Cofac Taldeak 217 bazkide eta 250 saltoki baino gehiago ditu, Estatu osoan, Andorran eta Portugalen banatuta. 2.500 profesionalak baino gehiagok ematen diete bezeroei aholkua eta zerbitzu pertsonalizatua.

ULMA Packaging

### **ULMA PACKAGINGEN EGOITZA BERRIA ITALIAN.**

Joan den azaroaren 16an inauguratu zen ULMA Packagingen Italiako egoitza berria, gonbidatu askoren artean. Egoitza berriko azpiegiturak 350 m<sup>2</sup>-ko eraikina eta 450 m<sup>2</sup>-ko planta dira, eta Piacenza ondoko industrialde batean daude, Gragnano Trebbiensen. Italiako filiala 2002an eratu zen eta, horrenbestez, orain dela 20 urte, banatzaile baten bitartez hasi zen etapa itxi eta berriari ekingo dio. ULMA Packaging Italiak gaur egun duen egituran 13 pertsonak lan egiten dute (6 zerbitzu teknikari, 2 administrari eta 5 komertzial), joan den urtean 6 miloi euro fakturatu zuen, eta datozen urteetan nabarmen haziko dela aurreikusten da.



ULMA Agrícola



## ULMA Agrícolaren hazkuntza mahai eramangarri berriak

Orain arte, ULMA Agrícolak bi motatako hazkuntza mahaiak zituen: finkoak eta mugikorak, eta orain horiei beste modelo berri bat gehitu zaie, "Hazkuntza mahai eramangarriak" izenekoa. Mahai mugikorren sistemak bi errodamendu dauzka, bi tutu ibiltari, gida lanak egiten dituen elementu batzuekin eta, aldi berean, mahaia ez iraultzeko funtzioa betetzen dutenak, eta horrela berotegiaren barruko azalera ahalik eta gehien aprobetxa daiteke, pasillo bakar batekin mahai guztietara iritsi baitaiteke. Pasilloak mahaia mugitzean sortzen dira; erretiluak mugitzen dira, baina astoak lurrari lotuta daude. Mahai mugikorren modelo berriaren ezaugarria, hau da, eramangarriena, asto bakoitzak goma beltzeko gurpilak dituela da: lurrari oso ondo atxikitzen zaizkio, eta norabide askokoak dira; aurreko gurpil batek eta atzeko beste batek, diagonalean, frenoa dute, eta gainerakoek ez. Mahaiak hazkuntza mahaien zirkuituak sortzeko pentsatu eta diseinatu dira, eta mahai osoa eraman daiteke batetik bestera. ULMA Agrícolaren hiru hazkuntza mahaiak beroan galbanizatutako altzairuzko astoak dituzte, eta ertzak aluminiozko profilak dituzte. Akabera horri esker, modeloa oso egokia da aurkezpen eta erakusketetan jartzeko. Mahaiari eman nahi zaion erabilgarritasunaren arabera, ULMA Agrícolaren aurreko modeloetako edozein aukera daiteke, bi mahai hondoren artean aukeratuta: PVC eta Sareta.

ULMA Forja

**ZARATA GUTXIAGO ULMA FORJAN.** ULMA Forjak, estrategikotzat jo diren puntuetako batekin bat eginda, eta langileen lan baldintzak hobetzeko ahalegin etengabea, oloztatze gunea intsonorizatzeari ekin dio. Obraren mamia oloztatze prozesu guztia estaltzea izan da; operazio hori mekanizazio prozesuaren kritikoenetakoa da. Orain, instalazio horrek sortzen zuen zarata maila errotik murriztea lortu da. Lehen esanenez, ekintza hau ULMA Forjako langileen lan baldintzak hobetzera zuzendutako ekintza estrategikoen barruan kokatzen da. Iragarri den hurrengo ekintza mekanizazioaren gunean hozteko sistema bat instalatzea izango da, udan egin ohi duen beroa arintzeko.



ULMA Hormigón Polímero

## ULMA Hormigón Polímero presente 2007ko BATIMAT eta SAIE azoketan



ULMA Hormigón Polímerok 2007ko BATIMAT azokan parte hartu berri du, Parisen, azaroaren 5etik 10era bitartean. 2007ko SAIE azokan ere parte hartu zuen, Bolognan, urriaren 24tik 28ra bitartean. Batimat bere standa izan du, eta SAIE n, berriz, Orvegen bidez erakutsi zuen bere jarduna, hau da, ULMA Hormigón Polímerok Italian duen banatzaile nagusiaren bidez. Bi azoketan Kanalizazio lerroaren produktuaren nobedadeak aurkeztu dira: hormigoi polimerozko kanalen lerro berria, %2,5eko maldarekin, eta HYDRO kanalen gama. Batimat Frantziaren erakuntzaren sektorean egiten den azoka generalista nagusia da. Bere eragin esparrua ez da frantziar herrialdera mugatzen, beste herrialde askotara ere zabaltzen baita, batez ere Afrikan, herrialde frankofonoetan eta Frantziako itsasoz bestaldeko herrialdeetan, hau da, Guadalupen, Martinikan, Polinesian eta abarretan. Aurtengoa bigarren aldian du jarraian ULMA Hormigón Polímerok azoka horretan parte hartzen.

ULMA Hormigón Polímero

## ULMA Hormigón Polímerok goi mailako etxebizitza baterako pieza bereziak garatu ditu

ULMA Hormigón Polímero espezialista da material horretako pieza aurrefabrikatuen diseinuan eta fabrikazioan, eta "soluzio pertsonalizatu" bat aurkeztu du familia bakarreko etxebizitza dotore baterako, Girona probintziako Sant Antoni de Calonge herrian. Beste pieza batzuen artean, leiho berezietarako ertzak diseinatu eta egin ziren, erlaitzak, erlaitzen aurrealdeak eta forjako aurrealdeak. Eraikina muino batean dago, itsas aurrean, eta proiektua egin zuten DNA Arquitectos etxeko arkitektoek, alde batetik, material iragazgaitza bilatu zuten, itsas kresalak piezak ez hondatzeko, eta, beste alde batetik, tenperatura aldaketekiko erresistentea izango den materiala, piezak aldaketa atmosferikoetatik babesteko eta, ondorioz, horien iraunkortasuna bermatzeko. Horrez gain, etxeari kutsu dotore eta fina eman nahi zitzaion. Horretarako, etxearen berezitasun guztiak bideratu eta nahi ziren forma guztiak egitea ahalbidetuko zuen materiala behar zen. Beharrezko eskakizun guztiak betetzeko eta, gainera, materiala jartzen lagunduko zuen



soluzio bat aurkezteko, sustatzaileak eta arkitektoek, azkenean, hormigoi polimeroa aukeratu zuten.



ULMA Orga Jasotzaileak

### ULMA ORGA JASOTZAILEAK FIMMA MADERALIAREN 33. EDIZIOAN IZAN DA.

ULMA Orga Jasotzaileak negozioak HUBTEX orga jasotzaileen gama erakutsi zuen Fimma Maderalia azokan, Valentzian, azaroaren 7tik 10era; gama hori zuraren, aluminioaren, metalaren edo plastikoaren sektoreetarako egokia da. Erakustokia bisitatu zutenek 2120 serieko MQ25 multinorabidekoaren eraginkortasuna egiaztatu ahal izan zuten, baita 3050 serieko DQ40 lau bideko diesel trizikloarena eta pilotzailearena ere, eta aholkularitza pertsonalizatua ere jaso zuten. Edizio honetan, ULMAk aurkeztutako produktuen gamak ikusmin handia sortu zuen, oso egokia gertatu baitzen bertaratutako publikoarentzat.

ULMA Agrícola

## ULMA Agrícola erakusketari izan zen Amsterdamen egindako Horti Fair azokan

ULMA Agrícolak seguruenik mundu mailan babespeko hazkuntzaren sektorearen azokarik garrantzitsuena den Horti Fair azokan erakutsi zuen bere produktua, Amsterdamen, 2007ko urriaren 9tik 12ra bitartean. ULMA Agrícolak, dagoeneko ohikoa denez, 80 m<sup>2</sup>-ko Multikapera Gotiko modeloko berotegi batean paratu zuen erakusmahai, eta bertan urte honetan zehar I+G+b-ko departamentuak garatutako nobedadeetako zenbait aurkeztu zituen, horien artean GSM sistema eta hazkuntza mahai eramangarria. Aurtengo edizioan 985 enpresak erakutsi zituzten beren artikuluak, 51 herrialdeetatik etorriak, eta 108 herrialdeetako 46.846 profesional bisitari bertaratu ziren; horietatik %25ek erosteko asmoa zeukaten, eta bisita egin eta %80k adierazi zuten hurrengo edizioan ere azokara joango direla. Arrazoi hori tarteko, Horti Fair sektore osoarentzako zita saihestezin bihurtu da.





### ULMA Construcción

## Eraikuntzako Ingeniaritzako Europako Masterreko ikasleek ULMA Construcción bisitatu dute

Kantabriako Unibertsitateko Eraikuntzako Ingeniaritzako Europako Masterreko hainbat ikasle eta irakaslek ULMA Construcciónen bulegoak bisitatu zituzten joan den azaroaren 15ean. Beste herrialde batzuen artean Txina, Polonia, Frantzia eta Txiletik etorriak, enpresaren funtzionamendua eta produktuak ezagutzera gonbidatu zituzten, inguruko ohiturez disfrutatzeaz gain. Egun betea izan zen. Bisita enpresari buruzko aurkezpen labur batekin hasi zen, ikasleek kooperatibaren balioak, osaera, nazioarteko hedapena eta beste hainbat alderdi interesgarri ezagutu zituzten. Sarrerako saioaren ondoren, Garibaiko produkzio plantan ibili ziren, eta han bertatik bertara fabrikazio prozesuaren antolamendua eta produktu desberdinen gauzapena ikusi ahal izan zuten. Bertaratuak harriturik geratu ziren ULMA Construcciónen instalazioen neurriengatik eta ekoizteko gaitasunagatik. "Prestakuntza" ibilbideari amaiera emateko, produktuen aplikazio erreala erakutsi zieten in situ, Gasteiz-Eibar autobideko zati batean, zehazki Basagoitiko zubibidean. 260 metroko tunel baten irteeran egiten ari dira zubibideko obrak, Gellao ibarbidea gainetik igarotzeko helburuarekin. Aretxabaletako Izurieta auzoaren ondoan kokatuta, 250 metroko luzera izango du. Aipatu zubibidearen datuak eta planoak emateaz gain, bisita obrako burua den Xabier Palaciosen azalpen teknikoekin osatu zen, Iñaki Garmendiaren laguntzarekin. Master hau ULMA Construcciónek babesten du, eta orain dela 15 urtetik ingelesez ematen da, Europako zazpi unibertsitateen laguntzari esker: Politécnico Di

Bari (Italia), Fachhochschule Giessen-Friedberg, Hochschule 21 eta Universität Lüneberg (Alemania), Universidade do Porto (Portugal), Universidad Politécnica de Valencia eta Vitus Bering (Danimarka). Oraingoan, lehenengo hiruhilekoa Kantabriako Unibertsitatean gauzatuko da, eta bigarrena goian aipatutako unibertsitate daniarrean. Horrenbestez, ULMA Construcciónek belaunaldi berrien prestakuntza espezializatuari lagundu nahi dio, eta, horrez gain, Europako herrialde desberdinetan ikasleen eginkizuna sustatu eta elkartruke kultural eta teknologikoaz baliatu. Ikasleek, bisita amaitu eta gero, hartutako tratuatik eskerrak emateaz gain, nahi bizia adierazi zuten Master amaierako proiektuak ULMA Construcciónen edozein filial edo delegaziotan egiteko. Masterrak aukera ematen du proiektua programa babesten duten edozein erakundetan egiteko, eskaintzen diren herrialdeen barruan. Horri esker, erreleboa gauza segurua da.



### ULMA Forja

**5.000 TONAKO PRENTSA HIDRAULIKO BERRIA.** Dagoeneko ikus daitezke 2008an martxan jartzea espero diren inbertsio handien emaitzak. Forjaren arloan 5.000 tonako prentsa hidrauliko berria zimendatzen ari dira, bere elementu periferiko guztiekin. Halaber, gune horretan bertan, labe birakari berria jarriko den ingurua prestatzeko lanak hasi dira, baita tratamendu termikoaren lerro berria ere. Aldi berean, arlo horren zabalgunea estaliko duen estalkia instalatu da. Mekanizazioaren gunean, produktuaren gama berria egingo duten mekanizatze makina berriak ipintzeko zimendua jartzen hasi da. Azkenik, BEGIRAREN aurreko zenbakian iragarri zenez, ULMA Handling Systems biltegi automatikoa instalatzen hasi da, eta hori argi ikus daiteke Zubillagako saihebidetik. Horrek oraingo biltegia lekuz aldatzea ekarri du. Horren ondorioa izango da 2008an enpresa ia erabat desberdina izatea baina, imajina dezakezue, orain benetako kaosa izaten ari da ekoizpenaren eta bidalketen arloetarako, are gehiago kontuan hartuta 2007an produkzioaren errekorra izango dugula, eta horrek arazoa are larriagotzen du.



ULMA Agrícola

## ULMA Agrícola Lorezaintzako Merkataritza Gune bat egin du

Salmentarako eta aisiarako guneak eraikin berean bateratzeko joera nekazaritzaren arlora ere iritsi da. Giro komertzial bereziak sortzeko eskaera dago gaur egun, eta bertan ez dago bakarrik landareak zaintzeko gune egoki bat, ez: giro ezin hobea sortzen da amaierako kontsumitzaileak erosketa egin dezan, eta giro hori indartzeko aisiari eskainitako gune bat ere sortzen da. ULMA Agrícola ezaugarri horiekin egin dituen azken instalazioa Guadalhorce ibarrean da, zehazki Aloran, Malagatik 39 km-ra. Instalazioak 3.000 m<sup>2</sup> ditu, eta inguruan 10.000 m<sup>2</sup>-ko espazioa. Instalazioan hiru nabe daude, 12,8 m zabal bakoitza, sei M8-rekin zeharka lotuta. 4.5 m b/c-ko egitura honetan erabilitako estalkia txapa lakatuzkoa da biltegiaren aldean, sabaian polikarbonatoa erabili da, eta ia perimetro osoan kristala. Brico jardin- Alora/ Garden García Garrido izeneko zentroan oso nabarmen bereizitako guneak aurki ditzakegu. 400 m<sup>2</sup>-ko biltegia, 2.000 m<sup>2</sup>-ko denda, 400 m<sup>2</sup>-ko kafetegia-jatetxea eta haurrentzako jolas parkea. Horrenbestez, merkataritzako eta aisiako guneen artean oreka lortzen da, eta "Lorezaintzaren merkataritza gune handia" bihurtu da, non landaredia eta lorategiko altzariak nagusitzen diren eta, jakina, baita aisia ere.



## ULMA PACKAGINGEK HAMARGARREN URTEURRENA OSPATU DU HEGOAFRIKAN.

Joan den irailean, ULMA Packagingeko Hegoafrikako filialak hamargarren urteurrena ospatu zuen. 1997. urtean erabaki zen Hegoafrikako filial propioaren aldeko apustua egitea, hezteko ahalmen ikaragarria zuen herrialde hartan tokian tokiko zerbitzua emateko. Hura bigarren filiala zen, urte bat lehenago Estatu Batuetakoa eratu baitzen. Filialaren kudeaketa arrakastaz gidatu zuen figura Marcel Van Niekerk izan zen. Urte honen hasieraz geroztik, Marcel Estatu Batuetako filialeko kidea da, Kaliforniako egoitza berrian, eta aurreko urtearen amaieratik Eddi Reademan da haren ordezkaria Hegoafrikako filialean. Hegoafrikako filialean gaur egun 14 pertsonako talde batek dihardu lanean, ULMA Packagingek atzerrian dituen 16 filialeko familia handiaren barruan.

ULMA Packaging



## ULMA Hormigón Polímero presente Europako plataforma logistikorik handiena den PLAZAn

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hormigón Polímero PLAZAn presente dago, hau da, Europako plataforma logistikorik handiengan, eta hori kanalizazio lerroaren bidez lortu du. Zaragozako Plataforma Logistikoa (PLAZA) 12.826.898 m<sup>2</sup> zabal da, eta europar kontinenteko esparru logistikorik handiena da. PLAZAren ezaugarri nagusia garraiorako zentro intermodal batean oinarrituta dagoela da (trenbidea, errepidea eta hegazkina) eta, konbinazio horri esker, Zaragoza Europako hiri logistikorik garrantzitsuenetako bihurtu da, produkzio eta kontsumo zentro nagusietara konektatuta. ULMA Hormigón Polímerok proiektuan egin duen ekarpena 9.000 ML-ko kanal tekniko bat hornitzea izan da, hainbat altueratan erabil daitekeena, galdaketako saretaz hornitua, ibilgailuak pasatzeko; kanala luzetara hedatzen da PLAZAko tren plataformako galtzadan zehar. Horrez gain, plataformari ibilgailu astunen pasaguneetarako kanalak ere egin zaizkio, eta kamioien aparkalekuetan ipini dira.



### ULMA Handling Systems

## ULMA Handling Systemsek garatutako automatizazio logistikoak plataformaren jarduera hirukoiztea eta etorkizuneko hazkundera segurtatzea ahalbidetzen du

Consum S.Coop. Katalunia, Valentziako Erkidego, Gaztela-Mantxa eta Andaluziako banaketa katea da, 556 denda ditu martxan, eta produktu lehorrari eskainitako plataforman automatikoki biltegitatzeko eta eskaerak prestatzeko sistema bat ezarri du, ULMA Handling Systemsek diseinatu eta garatua. Zerbitzuari malgutasun handiagoa emateko eta eskaeraren gorabeherei hobeto moldatzeko helburuarekin, CONSUMek Valentziako Sillan garatutako automatizazio proiektuaren alde egin du. Sistemak palet erdiak eta palet osoak automatikoki hartu, biltegitatu eta bidaltzeko eginkizunak betetzen ditu. Halaber, errotazio maximoko 600 erreferentziatarako picking birjarpen automatikoa ere egiten du. Guztira, sistemak plataformaren jardueraren %55 bereganatzen du. ULMAK garatu duen proiektua bi eraikinetan dago kokatuta: bata siloa da, 5.527 metro koadro ditu, 30 metro luze da eta 9 transjasogailu automatiko ditu, 18.368 kokapenekin; eta bestea pickingerako da, bi plantatan antolatuta, eta azalera guztira 8.855 metro koadro da. Bigarren eraikin horrek 6 jasogailu eta 12 orga transferitu dauzka, birjarpenerako. Sistemaren sarrera ahalmena orduko 220 palet da, eta horrek esan nahi du egunean 5.060 sartzen direla, kontuan hartuta lan prozesua 23 orduz egiten dela etengabe. Palet osoen eta palet erdien bidalketa maximoa, berriz,

orduko 80 paletekoa da, eta horrek esan nahi du egunean batez beste 3.680 bidaltzen direla. 600 erreferentziatarako pickingeko birjarpenak orduko 140 paletara irits daitezke, hau da, egunean 3.220. CONSUMeko zuzendarien hitzetan, "sistema automatikoak, jarduera hirukoizteko aukerarekin, plataformaren etorkizuneko hazkundera segurtatzen du, eta soluziorik egokiena izan da erabilgarri dugun azalera aprobetxatzeko eta beste plataforma batzuetara migrazioa atzeratzeko". CONSUMek ULMArekin izandako lankidetzaren alderdi nagusi gisa aipatzen ditu profesionaltasuna, zerbitzuaren kalitatea eta epeak betetzea, izan ere, horiek oso baldintza garrantzitsuak dira hau bezalako neurri handiko proiektu bati buruz hitz egiterakoan: errendimenduari dagokionez oso baldintza zorrotzak ezartzen dira, eta manipulatu beharreko produktuaren bolumetrian eta pisuan ezaugarri bereziak ditu. Bere aurreikuspenen artean, CONSUMek Sillan automatizazio logistikorako gauzatutako eredua merkantzia orokorretako beste plataforma batzuetara zabaltzea pentsatu du, plataforma horietan automatizazioa egiteko behar diren baldintzak betetzen direnean. Era berean, pickinga automatizatzeko proiektuak garatzea planteatu du, produktibitatea eta operazioko baldintzak hobetzeko, baita erroreak murrizteko kudeaketa sistemak ezartzea ere.



### ULMA Forja

**M.U.K ULMA FORJAKO LANGILEEI IKASTAROAK EMATEN DIZKIO.** MUK emandako eta ULMA Forjaren behar bereziei egokitutako hainbat ikastaro amaitu berri dira, eta planteatutako asmoak erruz gaingitu dira. Ikastaroak ULMA Forjako instalazioetan bertan eman dira, inplikaturako langileak errazago joan zitezten. Hauek dira eman diren gaiak: Mekanizazio, torneaketa eta zulaketa ikastaroa, Mekanizazioko Departamentuaren beharretara moldatuta, eta Industri ekipamenduen mantentze espezializaturako ikastaroa, batez ere forjaren arlora zuzendua. Ikastaroen iraupena 150 eta 318 ordu izan da, hurrenez hurren. Ikastaroak garatzeari esker, goi mailako graduako prestakuntza zikloak egin gabe zituzten langileek ezagutza garrantzitsuak barneratu ahal izan dituzte beren lanpostuak ezin hobeto betetzeko. Ezagutza horiek finkatu eta lanean zuzen aritzearen ondorioa izango da enpresan iraupen jakineko bazkideen figurarekin sartzea.



### **ULMA ORGA JASOTZAILEAK NEGOZIOAK AKORDIO GARRANTZITSUA ITXI DU CECOFARREKIN.**

Cecofar farmazi banaketaren sektorean ibilbide luzea duen talde kooperatiboa da, eta ULMA Orga Jasotzaileak negozioaren zerbitzua hautatu du bere parkea 37 MITSUBISHI orga jasotzaileekin berritzeko. Azterketa zehatza egin eta gero, ULMAk eskaintza pertsonalizatua egin zien, eta manipulatzeko eta biltegitzeko beharrei ondoen egokituko zaizkien orga jasotzaileei buruzko aholkua eman zien. ULMAk aurkeztutako proposamenak merkatuko enpresa liderrak gainditu zituen, bere egiten jakitea nabarmenduz. Oraingoan, ULMAk Espainia osoan duen banaketa sareari esker eskuratu ahal izan da proiektua, bai delegazioei dagokienez, bai banatzaileei dagokienez. Negoziazio hau itxi ULMA lekua irabazten ari da Andaluziako merkatuan.

## **ULMA Packaging partaide Berrikuntza Teknologia Garatzeko Zentroak (CDTI) lagundutako CENIT proiektuan**

FUTURAL (Futuros Alimentos) akronimoaren barruan, Industria, Merkataritza eta Turismoko Ministerioak itzuli beharrik gabeko 20.627.574 €-ko diru laguntza eman dio ULMA Packagingi, lau urteko iraupena (2007-2010) eta 9.115.330 €-ko aurrekontu globala duen proiektu baterako. CENIT proiektu honen ikerketan hainbat enpresak dihardute, horien artean BARRUFET, CASADEMONT, GUTARRA, Hyperbaric, Exxentia, DANONE, METALQUIMIA, COVAP, SEALED AIR, AMCOR, MAHOU-San Miguel Taldea, EROSKI, Nanobiomatters, ULMA Packaging... eta hainbat unibertsitatetako I+Gko zentrozen babesa dago, tartean izanik GAIKER, AZTI, CNTA, CENTA, AINIA, ANFACO, IATA-CSIC, IRTA, Santiagoko Unibertsitatea eta abar. Proiektuaren jarduerak batez ere elikaduraren segurtasunera eta produktu freskoaren kontserbaziora zuzenduta daude, eta hainbat zutabetan taldekatzen dira: goi preziozko esterilizazioa, goi preziozko tratamenduak elikagai solido eta likidoetarako, uhin elektromagnetiko bidezko tratamendu termikoa elikagai

solido eta likidoetarako, ontziraketa aktiboak eta fluido superkritikoen aplikazio berriak elikaduraren industriarako. ULMA Packagingek EROSKI, AMCOR, Mahou-San Miguel Taldea eta Nanobiomatters enprekin lankidetzan egingo du ikerketa, ontziraketa aktiboaren zutabeen kokatuta. Zutabe horren helburua garagardoaren industriaren hondar korronteen aprobetxamendua aztertzea da, aterakin antimikrobiano eta antioxidatzaile bat lortzeko, eta hortik abiatuta nanogehigarri aktiboak garatzea, enbasatzeko materialei gehitzeko; azkenik, enbasatzeko sistema higienizagarri automatikoa garatu nahi da, lortutako film soluzioa industrian aplikatu ahal izateko, bizitza baliagarria luzatzeko. Zehazki, ULMA Packagingek eta ULMA Packaging Technological Centerrek, Gaiker eta AINIA enprekin lankidetzan, enbasatzeko ekipamendu automatikoen diseinu higienikoa lortzeko lanak eta film aktiboaren amaierako industri aplikazioa garatuko dituzte. Itzuli beharrik gabeko diru laguntza 629.994 €-koa da.

**EROSKI-ULMA LANKIDETZA HITZARMENA.** Urriaren 1ean izenpetu zen, Oñatin, EROSKIko Constan Dacosta, Agustín Marcaide, Vicente Gomez eta Eduardo Cifrian eta ULMAko Txomin Garcia, Juan Ignacio Agirre eta Fran Etxaniz bertan zirela. I+G+b-rako lankidetzaren hitzarmen bat ezarri da, produktu freskoetarako enbaseak eta enbasatzeko eta kontserbatzeko soluzio berriak garatzeko (okela, arraina eta mariskoa, frutak eta barazkiak, okindegi eta gozotegiko produktuak eta aurrez prestatutako platerak); halaber, garapen berri horiek beharrik dituzten produkzio lineak eta enbasatzeko makinak ere garatuko dira. Horrez gain, ikerketa talde nazionalekin zein internazionalen I+G proiektuetan elkarrekin jardutea ere kontuan hartzen da, produktu freskoak enbasatzeko proiektuak garatze aldera, esaterako, enbase aktiboak eta iraunkorrak garatzeko.



### ULMA Agrícola



**ULMA AGRÍCOLAREN FILIAL BERRIA MEXIKON.** Azken urteetan, Mexikon gero eta hedadura handiagoa dago berotegiz estalita, eta ULMAk dagoeneko hainbat proiektu dauka Mexikoko Errepublikako 32 estatuetako 15etan. ULMA Agrícola 2004an instalatu zen Mexikon, eta filialaren bitartez hurbilago eta azkarrago erantzun nahi die Mexikoko Errepublikako hainbat estaturi. Hasieran, ULMA Agrícolak 160 m<sup>2</sup>-ko espazio bat zuen, soilik bulegoak hartzeko, baina merkatua hazten ari dela eta, eta zerbitzu hobea eman ahal izateko, filiala beste kokapen batera aldatu da, eta gaur egun gutxi gorabehera 700 m<sup>2</sup>-ko pabiloia dauka: horietatik 500 m<sup>2</sup> biltegia dira, trailerrak sartzeko sarrerarekin eta aparkatzeko 6 lekurekin, eta gainerako 200 m<sup>2</sup>-etan bulegoak daude. Bertan, gaur egun, Proiektu zuzendari batek, bi komertzialek, Obra zuzendari batek eta administrari batek lan egiten dute, guztiak ala guztiak bertakoak, Iker Larreategi donostiarraren zuzendaritzapean. ULMA Construcción y Agrícola de México, S.A. de C.V., Carr. México –Querétaro- Km37.5 – N° 5010, Cond. Industrial Cuamatla – Bodega 45, 54730 CUAUTITLAN IZCALLI – Edo de México (Mexiko).

### ULMA Construcción

## ULMA Construcciónek Eraikuntzako Lan Segurtasun eta Osasunari Buruzko II. Astea babestu du Murtzian



Eraikuntzaren sektorean Laneko Segurtasuna komunikabideetako gai bihurtu da, gehiago alderdi negatiboengatik dauden aurrerapengatik baino. Haatik, istripuak progresiboki jaisteko arazoien artean daude ekipamendu kolektiboak zein indibidualak hobetu egin direla eta segurtasun neurri etengabeak hartzen direla. Gai hori eta beste hainbat eztabaidatu zituzten Murtzia eskualdeko Eraikuntzako Lan Segurtasunaren II. Astea. Urtero bezala, ULMA Construcción enpresak babestu zituen jardunaldiak, eta prestakuntza hitzaldiak ere eman zituen. Ekitaldia bi urtean behin egiten da, eta Murtziako Totana herrian gauzatu zen, azaroaren 20an eta 21ean, eta gero hiriburura joan zen, amaiera ekitaldia egiteko. Jardunaldiak eraikuntzako Segurtasunerako Mahai Teknikoak antolatzen ditu, eta helburua da profesionalen, enpresa inplikatuena, administrazioen eta profesionalen elkargoen artean ezagutzak eta esperientziak produktiboki trukatzeko elkargune bihurtzea. Ez da ahaztu behar bertan lankide eta babesle direla Murtzia Erregioko Lan eta Gizarte Politikarako Saila, Arkitektoen Elkargo Ofiziala eta Eraikuntzako Enpresarien Federazio Erregionala, beste erakunde batzuen artean. ULMA Construcciónek, bere hasieratik, segurtasunari buruzko edozein jardunaldi eta biltzarretan parte hartzen du; are gehiago, bezeroak edo edozein enpresak eskatuz gero, Prestakuntzako Teknikariak eskaintzen ditu, produktuaren segurtasunari buruzko ikastaroak ematen ditu, muntatze eta desmuntatze lanei buruzkoak... Horrenbestez, ildo horretan, Eraikuntzako Lan Segurtasun eta Osasunari buruzko lehenengo deialdiak geroz-

tik ari da bertan parte hartzen. Eta zalantzarik ez, aukera sortzen den bakoitzean ere parte hartzen jarraituko du. Oraingoan, ULMA Construcciónek Enkofratu eta Aldamioetako Segurtasunari buruzko hitzaldi bat eskaini zuen, zehazki, babes kolektiboak erabiltzeari buruz, istripuak galarazteko. Horren barruan, enkofratu horizontalei dagokienez, besteak beste aipatu ziren panela muntatzeko behe forjatuzko sareak, perimetroan edo barruko hutsuneetan barandak erabiltzea, SARE segurtasuneko apala eta forjazko ertz babeslea duen aldamia. Horrez gain, enkofratu bertikalei dagokienez, azalpenaren gaia izan zen plataformak osatzeko lan mentsulak erabiltzea, altuerako lanak modu seguruan egin ahal izateko. Aldamioen gaian, edukien artean aldamioak muntatzeko segurtasuneko oina eta estalkiko ertzen babesa aipatu ziren, azalera makurretatik erorikoak galarazteko, esaterako, teilatutik. Hiru egun horietan izandako elkarriketa eta hitzaldietan lan arloko segurtasun eta osasunari lotutako gaiak landu ziren. Saio tekniko desberdinetan hainbat hitzaldi eman ziren, besteak beste, gai hauek sakontzeko: Azpikontratazioaren Legeari buruzko Errege Dekretua, produktuaren segurtasuna eta ziurtapena, istripuen estatistikak eta segurtasun ikuskaritzak. Astea oso bizi joan zen eta, amaitzeko, ekitaldi instituzional bat egin zen, zeina Mahai Teknikoaren sari banaketarekin amaitu zen. Laneko segurtasunari buruzko II. Edizio honetako azken hitzak Murtzia Erregioko Enplegu eta Prestakuntzako sailburua den Constantino Sotoca Carrascosa jaunak esan zituen, eta horiekin amaitu zen ekitaldia.

### ULMA Orga Jasotzaileak



**HUBTEX PICKING PLATAFORMA BERRIA.** ULMA Orga Jasotzaileak negozioak pickingeko nobedade handiak aurkeztu ditu karga luzeetarako HUBTEX plataforma multinorabidekoaren bidez, eta soluzioa ematen die picking eragiketarik konplexuenei. Picking plataforma berria jasokuntzako 2 sistemaz osatuta dago: masta bidezko jasokuntza eta guraize bidezko jasokuntza, eta 2000-10000 kg-ko karga ahalmena dauka. Plataforma gidatua da, eta 1 edo 2 langilerekin egiten du lan. Modelo honen ezaugarria pasilloaren bi aldeetako picking ahalmena da; bezeroaren behar guztietara eta biltegiaren ezaugarrietara ezin hobeto moldatzen da, eta hori ezinbesteko ezaugarria da, sektore konplexu horretan manipulatu beharreko kargak (oholak, pvc, polimeroa...) luzera eta zabalera handiak hartzen dituztelako, eta biltegiaren ezaugarriak konplexuak direlako. Picking plataformak manipulaziorako behar den espazioa minimizatzen du, eta eskaera baten pickinga ziklo bakar batean egitea ahalbidetzen du; ondorioz, manipulatzeko denbora asko laburtzen da.



## **“Lana eta familia arazorik gabe uztartu behar dira”**

**Duela gutxi ULMA Taldeko lehendakari izendatu zaituzte, nola hartu duzu erronka berri hau?** Izendapena ustekabean harrapatu ninduen baina, hori pasatuta, kargua ilusio handiz eta erantzukizunaz hartu dut. Erronka benetan interesgarria da niretzat bai pertsona moduan bai profesional moduan. Une honetan, gainera, Taldea osasuntsu dabil, bere negozioak egoera onean daude eta nabarmentzekoa da daukan dinamismoa; horregatik, daukadan erantzukizuna

handiagoa da, nik uste. Izan ere, gehien gustatuko litzaidakeena da Lehendakaritza uzterakoan ULMA Taldearen egoera, ekonomikoa eta soziala orain baino hobea izatea, eta hori ez da gutxi. Horretarako, bereziki motibatzen naute, Lehendakaritzan daramatzadan hilabete gutxi hauetan bai ULMA Taldean bai nire Negozioan, ondoan izan ditudan pertsonak.

**Hemendik 3 urtera ULMA Taldeak bost hamarkada beteko ditu. Sozialki, zein**

**egoeratan gaude?** Hasteko, esan beharko genuke une honetan aldaketa sozialak gertatzen ari direla lan arloan. Lanaren baldintza sozialen gaineko hainbat lege garatzen ari dira, hala nola berdintasunaren legea, aitatasunagatiko baimena eta batez ere lana eta familia uztartzea helburua duten beste batzuk. Hori horrela, nik esango nuke ULMAko egoera ona dela, gai hauen gaineko hausnarketa ez baita gauza berria taldean. Gauza bat oso garbi daukat, gai hauetan ezin gara atzean gelditu, baina ahaztu ere ezin dugu ahaztu baldintza sozialetan aurrera egiteko alderdi ekonomikoak ondo funtzionatu behar duela. Oreka bilatu beharra dago, baina hori ezin da oztopo izan gure hazkunderako, enplegua sortzeko, hala balitz kontrako bidean joango ginatke eta. Ezin dugu ahaztu, alderdi sozialean kooperatibak bazkideei erantzun behar diela eta ez horiei bakarrik, inguruneari ere bai.

**Kooperatiba Talde gisa, pertsonak dira daukagun baliabiderik handiena. Zeintzuk dira eremu honetan ditugun erronka handiak?** Erronka handiak baino, eta aurreko galderarekin lotuta, nik uste dut gure lana izan beharko litzatekeela Taldeko pertsonen erraztasunak ematea lana eta familia arazorik gabe uztartzen. Jendeak bizi izateko egin behar du lan, eta ez bizi lan egiteko; beraz, horixe lortu behar dugu. Bestalde, lortu behar dugu jendea bere negozioko eta Taldeko proiektuarekin erabat identifikatuta egotea, eta horretarako lanean gustura egon behar du, pertsonal zein profesional mailan dituen nahiak gauzatuak ikusi behar ditu. Hori da, nire ustez, jarraitu behar dugun bidea, eta oraintxe bertan jarraitzen duguna ere bai. Garapen pertsonalerako

# Xabier Mugarza

ULMA Taldeko  
lehendakaria

Gaztea, oso gaztea dugu Xabier Mugarza (Oñati, 1973), maiatzetik ULMA Taldeko lehendakari berria. Hala ere, ia hamar urte daramatza dagoeneko hainbat eginkizunetan Talde barruan: ULMA Construccioneko Controllera (1998-2000); ULMA Construccioneko USAko filialeko den ULMA Formworkseko finantza zuzendaria (2000-2005) eta jatorriko etxeko Controllera (2006-2007). Ilusio handiz eusten dio bere eginkizun berria, dinamismo handiko une batean, gainera.

eta profesionalerako tresna guztiak ULMAko zati diren pertsonen eskura jarri behar ditugu, eta hori ondo egindako lana errekonozituaz eta sarituaz lortzen da, barne promoziorako aukerak emanaz, etab.



***“Taldeak izaera instituzionala ere izan behar du; lobbying lana burutu”***

**Zure ustez, zer alderdi sozial landu edo bultzatu behar da gure kooperatibetan?**

Esandakoaz aparte, lan segurtasuna eta osasuna dira, nik uste, funtsezko beste alderdi batzuk. Lana eta familia uztartzea edo proiektu batekin identifikatuta egotea baino garrantzitsua da lanean segurtasunaz aritzea, horrek beste guztian eragina izango du eta. Funtsezkoa da, jendea lanean seguru dagoela sentitzea eta ikustea ahal den guztia egiten dela istripuak gerta ez daitezten. Bultzatu beharreko beste gauza bat euskara da; horretan bagabiltza lanean poliki-poliki. Eta azkenik, Negozioaren osotasuna hobeto transmititzea nahi nuke, batez ere Eraikuntzan, ez bakarrik atzerriko eskumendeko edo filialetan dagokienez, Espainiako ordezkarietara dagokienez ere bai. Hori bai, negozioak ez luke horretan bere izaera lokala galdu behar, ez eta kanpoko ekipoak eta Oñatikoak elkarren errealitatea ezagutzeko duten aukera ere.

**Talde moduan, kohesio nahikorik al dago gure artean? Kohesioa landu behar al dugu?**

ULMA Taldean oso Kooperatiba desberdinak daude. Gure Taldean tamaina ezberdineko kooperatibak ditugu, sektore ezberdinetakoak, ...; beraz, garbi eduki behar dugu zein den Taldearen funtzioa, jarraibide orokorrak ezartzerakoan eta negozioei eguneroko jardunean garatu ezin dituzten alderdiak eskaintzerakoan. Nik esango nuke kohesioa badagoela, denok ULMA Taldekoak sentitzen garela, eta, gainera, uste dut badakigula zein den Taldearen funtzioa. Bide horretan jarraitu behar dugu lanean, Negozioei ahal dugun laguntza guztia emanaz hainbat gairen inguruan, esaterako promozioan eta berrikuntzan, komunikazioan eta markan, giza baliabideetan, eta beste hainbatetan. Taldeak izaera instituzionala ere izan behar du, Euskadiko, Estatuko eta Europako erakunde publikoekin hartu emanak areagotu behar ditu, eta ahal dugun neurrian Lobbying lana burutu. Bestalde, Talde bateko kide garenez gero, kooperatiba berriak errazago sortu ditzakegu, hala nola ULMA Agricola (lehen Eraikuntzaren barruan zegoena) edo Precinox, eta Packagingeko Zentro Teknologikoa martxan jartzea ere ez da zaila izan. Negozio bakoitzak, bere egoeraren arabera, laguntza desberdinak eskatuko dizkio Taldeari; halere, denok dugun ardura bakarra da, ULMA Taldearen izaerari eta Negozio bakoitzak Taldearen barruan duenari eustea alegia.

**Zeintzuk dira, zure ustez, gurea bezalako Talde batek ingurune gero eta lehiakorrago batean dituen benetako**

**erronkak?** Erronkarik nagusiena, ULMA Taldeko Negozioen lehiakortasunari eustea izango da, kontuan izanda ingurune gero eta globalizatuago batean gaudela eta gure printzipio eta balio kooperatiboekin jarraitu behar dugula. Lan hau gero eta zailagoa da, mundu osoan lehiari aritu behar dugulako eta baldintzak gero eta konprometituagoak direlako. Dena dela, gure izaera kooperatiboak lan hori oztopatu badezake ere, lagungarri ere izan daiteke, garapen jasangarria, ingurunearekiko errespetua, eta bestelako kontzeptuak, gero eta garrantzi handiago dutenak, beste batzuek baino modu naturalagoan garatzea ahalbidetzen digulako. Erronka, beraz, gure ingurunean aberastasuna eta ongizatea sortzen jarraitzea izango da, eta horretarako ezinbestekoa izango da berrikuntzan, ikerketan eta garapenean inbertitzea, unibertsitate eta teknologia zentroetako inguruneekiko harremanak bultzatuta eta sendotuta. Ezin dugu ahaztu tartean pertsonak ere badirela; beraz, erronka guztiei aurre egingo diegu kontuan izanda ULMA Taldea osatzen duten pertsonen bizi kalitatea bermatu beharra daukagula, erabateko lehiakorrek izan behar horrek itsututa egon gabe. Beste erronka garrantzitsu bat herrialde gehiagotan indarra hartzea izango da, hau da, negozioen nazioartekotasuna bultzatzea; beste era batera esanda, arriskua dibertsifikatzea. Labur-labur esanda, hazten jarraitu behar dugu eta gai izan behar dugu gurekin lehiari ari diren enpresak baino azkarrago hazteko eta gure pertsonentzako eta gure ingurunerako aberastasuna eta ongizatea sortzeko.

# Gure Pertsonen buruz

Gure Negozioetako Giza Baliabideetako zuzendariak bildu ditugu, eurekin mahai inguruan gure pertsonen buruzko gaurko gaiak eztabaidatzeko.



Xabier Mugarza  
ULMA Taldeko lehendakaria  
– (XM)



Aitor Galdos  
ULMA Construcción  
– (AG)

**Gero eta nabariagoa da erakundeetan giza faktoreak duen garrantzia, eta are gehiago behar luke gure kooperatibetan. Gure pertsonen behar besteko garrantzia ematen ari garela uste duzue?**

>> **AG:** Politikoki zuzena baietz esatea litzateke baina, benetako orduan, beharbada ez da hainbeste. Kooperatiba gara, eta geure borondatez ahalegina eta lana batu ditugu nahi ekonomiko eta sozial jakin batzuei erantzuteko. Bidean gara, baina oraindik badugu zer ibili.

>> **NA:** Derrigor eman behar diegu garrantzia pertsonen. Gure Negozioa intentsiboa da pertsonen dagokienez. Giza kapitala da gure benetako motorra. Horrek pertsonen politika zuzenean talentua erakartzera eta mantentzera eramaten gaitu. Horregatik, giza talde egokia edukitzea da gure negozio estrategiaren oinarritzeko faktorea. Pertsonak dira gure ondarea.

>> **JDF:** Gure kooperatibetan, beren izaeragatik, pertsonak oso presente daude enpresa proiektuan bertan. Uste dut hobetzen jarraitu behar dugun arloa dela proiektuaren aldeko ilusioa sortzea, gure pertsonak enpresaren beraren parte senti daitezten, garatzen jarraitzeko.

>> **XM:** Gure plan estrategikoetan, gure ikuspegian, Misioan... beti ari gara esaten pertsonak direla proiektuaren gako eta, ondorioz, koherenteak izan behar dugu horrekin. Edozein enpresatan funtsezkoa da, baina are gehiago kooperatiba batean. Nire iritziz, bai, pertsonen behar beste garrantzia ematen diegu.

>> **AA:** Bai, pertsonen balioa ematen diegu. Kooperatibetan parte hartzeko sortzen diren bideak balio hori barneratuta duten formulak dira, eta proiektuan inplikatzeko bilatzen da, pertsona ilusionatuak, motibatuak eta inplikatuak izateko.

>> **JMB:** Orain dela urte asko dagoeneko ULMA Taldean esan zen pertsonak egon behar zuela enpresaren bilakaeraren zentroan. Nire ustez, horren arabera jokatu da. Guk Forjaren Misioan dagoeneko jasota dugu pertsonen harro behar dutela ULMAkoak izateagatik. Hainbat gai lantzen ari gara helburu hori lortzeko. Bidea geratzen zaigu, baina horretan ari gara....

>> **JDF:** Uste dut marketinaren inguruko barne arazo bat dugula Negozioetan: errealitatea da gure jendeak enpresa proiektuan parte hartzen duela, baina ez dakigu hori saltzen. Oso bitxia da ikustea erregimen orokorreko jendeak askoz gehiago baloratzen duela parte hartzea, talde lana eta abar, geure bazkideek baino; bazkideen artean balio horiek diluitzen ari dira, jendeak jada ez du parte hartzea baloratzen, eta hori gure errua da, ez dakigu "garena" saltzen...



>> **AA:** Ados nago. Gurean, esparru nazional osoan nukleo txikiak barreiatuta ditugularik, egiten denari buruzko ezagutza falta hori itzela da. Baliabide asko bideratzen dugu kanpo marketinera, baina gure barne bezeroengana ez. Barruan marketindu behar dugu.

*“Gure jendeak bai parte hartzen duela proiektuan, baina ez dakigu saltzen gure izaera”*

kontratu psikologikoaren oinarrian dago eta, nire iritziz, bazkide konprometitu eta berritzailea izatea, jakin-mina duen bazkide bat izatea funtsezko elementua da negozioaren kaliterako eta berrikuntzarako. Konpromisoa enpresak irabazle bihurtzen dituen plusa da, eta,



Nuria Agirre  
ULMA Packaging  
– (NA)



Josetxo De Frutos  
ULMA Handling Systems  
– (JDF)



Asier Agirregomezkorta  
ULMA Orga Jasotzaileak  
– (AA)



José Manuel Biain  
ULMA Forja  
– (JMB)

**Kolektiboaren inplikazioa ezinbestekoa da enpresa proiektu baten arrakastarako. Gure bazkideek horrela erakutsi dute gure historiako une zailenetan baina, nola uste duzue belaunaldi berriak inplikatu eta motiba ditzakegula?**

>> **JMB:** Gaur egun, zalantzarik gabe, gazte jendea prestatuago dator, baina aurrekoak baino ekonomia erosoagoetatik ere badator. Orain aisiaren kultura finkatuago dago, eta jendeak bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren arteko oreka handiagoa bilatzen du. Krisi bat etorriko balitz, gazteek bere garaian beteteranoek erantzun bezala erantzungo luketela uste dut, horretan ez dut dudarik egiten.

>> **AA:** Lehen eta orain, denetatik egongo da, jende inplikatuagoa eta ez hain inplikatu. Egia da balioak aldatu egin direla. Finean, ez dut zalantzarik une zailetan behar bezala erantzungo dela.

>> **XM:** Ados nago denetatik egongo dela, baina aldea da ULMAko belaunaldi berriek ez ditugula urte zailak ezagutu, eta horrek egoera onera ohitzera eraman gaitzakeela. Optimista naiz, eta uste dut oro har ULMA proiektuarekin konbentziturik dagoen jende gaztea dugula, eta garai txarrak etorriko gero zuzen erantzungo dutela.

>> **JDF:** Urte oparoak bizitzen ari gara, eta ez dugu erabaki drastikorik hartu behar izan. Oparoaldi horrek denok erosoago egotea dakar eta, jakina, are gehiago arazo une horiek bizi izan ez dituzten pertsonen belaunaldiak. Dena dela ere, neuk ere ez dut zalantzarik momentua iritsiz gero jendeak erantzungo duela eta proiektuak edozein krisi gaindituko duela.

>> **NA:** Gure pertsona guztien konpromisoa lortu behar dugula uste dut. Konpromisoa bazkideek kooperatibarekin egiten dugun

guri dagokigunez, helburuak betetzeko balio digu. Konpromiso hori sortuko duten liderrak edukitzea ere funtsezkoa da. Negozio batentzat kosturik handiena motibaturik ez dauden pertsonak edukitzea da.

>> **AG:** Belaunaldien arteko desberdintasunari ñabardura egin nahi nioke. Garai bateko belaunaldiei une latzak bizitzea egokitu

*“Motibaziorik gabeko pertsonak izatea baino koste handiagorik ez dago”*



zitzaian, baina egia da, era berean, belaunaldi berriak sartzea, esaterako, ULMAko mundura, ULMAko bazkide izatera, ez dela hain bide erraza; gaur egun egin behar duten ibilbidea aurreko belaunaldiek egin behar izan zutena baino askoz zailagoa da. Gertatuz gero, egoera korapilatsuetan nola erantzungo den, ez dut zalantzarik berdin erantzungo dela. Inplikatzeko eta motibatzeke modua gure burua bestelakotzat aurkeztea da: hori dugu berezko ezaugarri, lana eta enpresa ulertzeko beste era bateko kideak gara.

>> **XM:** Bai nabarmendu nahi nuke, beharbada, gure historia izan denari buruzko ezagutza falta dela, ULMA Taldea izan denari buruzko ezagutza falta dela, beti ez gara honelako egoeran egon ulertzeko.

**Gure negozioentzako beste erronka handi bat pertsonak hainbat behar asetzeko atzerrira joan beharra da. Horri aurre egiteko benetan prestatuta gaudela uste duzue? Gure pertsonak horretarako prestatu ditugu?**

>> **AG:** Egia esan, gu ULMA Construcciónen horretan ari gara lanean, baina ez dago sistematikarik. Atzerriratze bakoitzarekin prestatu behar izaten dugu. Kasuz kasu aztertu behar dugu. Ez gaude jauzia

emateko prest. Pausoak ematen ari gara, bainahobetu egin behar da, eta kontzientzia hartu behar dugu enpresarentzat balio bat gara eta proiektuaren alde asko eman dezakegula.

>> **NA:** Nazioartekotzea eta profesionalak atzerriratzea goitik behera barneratzen ari garen bi erronka dira eta, horrenbestez, atzerriratzeke politika bat definitu dugu, zeinean hautagai posibleei buruzko informazioa biltzen den. Atzerriratzeke arazoak dakartza familian, karreran... Erronka profesionala eta era berean pertsonala da. Badakigu egokitzapena azkar eta arazorik gabe egiteak lasaitasun pertsonala esan nahi duela eta, ondorioz, eraginkortasun handiagoa jarduera profesionalean, izan ere, gure atzerriratze politikak integrazio familiarra hartzen du atzerriratuaren euskarritzat,

**“Atzerriratzeak kasuz kasu aztertu behar ditugu”**

komunikazio etengabea eta kasu bakoitzerako ordainsari esparru definitua ere funtsezkoak dira. Hemen esan izan da kasu bakoitza desberdina dela. Beti izango dira desberdinak. Inoiz ezingo dugu atzerriratzea modu sistematikoan kudeatu, kasu bakoitzari dedikazio eta goxotasun handia eman behar zaio, ez soilik atzerriratuarentzat, ingurune familiar osoarentzat baizik. Horrez gain, garrantzitsua da atzerriratzeke baldintzak zehazten direnean itzulera ere kontuan hartzea.

>> **JDF:** Guk ez dugu pertsona atzerriraturik, baina halere uste dut arazoak edukiko genituzkeela, aukera gisa baino gehiago arazo gisa ikusten delako. Beste enpresa batzuetan atzerriratzeke zera naturaltzat hartzen da eta, are gehiago, garapen profesionalerako aukera ontzat hartzen da, baina hemen barruan gehiago ikusten dugu arazo gisa, eta ulertzen dut karrera kurbetan integratu gabe daukagulako dela. Oraindik heldu gabeko gaia da.

>> **XM:** Neuri pertsonalki egokitu zait gai hau biziitzea. Bai uste dut gai honetan atzetik ibili gara. Egoerak eta kasuak modu partikularrean konponduz joan dira, eta borondate onarekin, baina hori ez da nahikoa. Ahalik eta gehien sistematizatu behar dugula uste dut,

### *“Atzerriratzea aukera baino, arazo ikusten da”*

jarraibide komunak landu behar ditugu. Egia da atzerriratze posibleetarako pertsonak prestatu behar ditugula, eta ate hori profil jakin batzuetarako zabalik utzi.

- >> **AA:** Gai honetan guk dugun esperientzia hutsaren hurrengoa da, baina horrek ez du esan nahi, gure plan estrategikoen aurreikusten dutenez, aurki horrelako figura bat beharko ez dugunik. Gai honetan erreaktiboak gara, eta uste dut atzerriratze arazoak izango genituzkeela, aukera hori eskaintzen duten profilak geureganatu ez dugulako.
- >> **JMB:** Soilik gure Negozioaz hitz egingo dut. Gu oraintxe bertan Indiara pertsona bat bidaltzeko puntuan gaude, eta atzerriratze hori ahalik eta modurik koherenteenean nola egin pentsatzen ari gara. Gure Negozioa beti izan da negozio bereziki esportatzailea, baina orain arte ez dugu atzerriratuaren figura horren beharrik izan eta, horregatik, ez gara prestatu. Orain irtengo da lehenengoa, eta seguruenik ez da azkena izango. Mundu gero eta globalizatuago honen beharretara egokitzeko profilak dituzten pertsonak hartzen hasi gara.
- >> **XM:** Lehen aipatu den gai bati heldu nahi nioke, eta hori itzuleraren gaia da.

Atzerriratze beharrak gero birkokatze gongo diren aukerak baino gehiago izango dira.

- >> **JMB:** Gai horri buruzko ikasketak erakutsi digu atzerriratzen diren pertsonak negozioan pisua duten pertsonak izan behar direla, Negozioa bizi izan dutenak. Hemen esan denez, nahikoa erraza da pertsona bat atzerriratzea, baina arazoa da joaten direnek noiz edo noiz itzuli behar dutela, eta gutxienez lehenagoko antzeko postuetara edo hobeetara itzuli behar dutela, eta horrek zaildu egiten du itzulera.
- >> **JDF:** Hemen esaten ari garenetik gauza batek kezkatzen nau, eta nazioarteko lehenengo irteeretako mamu zaharrak gogorarazten dizkit. Asmatu egin behar dugu aukera gisa saltzen, eta jende ona bidali behar dugu.
- >> **NA:** Ez dut uste atzerriratzearen gaia soilik sartu berrien kontua dela. Guk aurten 4 pertsona atzerriratu ahal izan ditugu. Jendea animatuta dabilela ikusten dugu. Ume txikiak dituzten familietan umeentzat ere esperientzia internazional aberasgarri gisa bizitzen da. Atzerriratuaren profila aldatzen ari da.
- >> **JMB:** ULMA Taldean, atzerriratu den jendea oro har jende gaztea izan da. Hainbat enpresatan laneko bizitzaren azken urteetan dauden pertsonak hasi dira atzerriratzen, esperientzia handiko pertsonak, ekarpen handia egin dezaketanak. Uste dut hori ona dela pertsonarentzat eta Negozioarentzat berarentzat.
- >> **AG:** Ados nago esaten ari zarenarekin, baina ez da berdina norbait Alemania, AEB, Italia edo abarretara atzerriratzea –eta hor beharbada itxaron zerrenda izango dugu– edo Dubaira, Poloniara, Brasilera...

**Datorkiguna bezalako merkatu urrian onenak erakartzea eta gure artean atxikitzea izango da gure etorkizunerako**

**gakoetako bat. Kooperatiba Talde bezala asko dugu eskaintzeko baina, hori nola egingo dugu?**

- >> **JMB:** Une honetan esan beharra dago ULMA Taldea erakargarria bada Negozioek proiektu erakargarriak eskaintzen dituztelako dela. Arazo nagusia da eskola eta unibertsitateetatik gero eta profesional gutxiago ateratzen dela, eta ULMA Taldeak gero eta gehiago behar du. Jendeak eskaintzen zaion proiektuari begiratzen dio eta, proiektua interesgarria bada, etorri egingo dira. Ordainsaria garrantzitsua bada ere, pertsonak gehiago kitzikatzen ditu proiektuak ordainsariak baino.
- >> **AA:** Oso egoera desberdinak ikusten ditut nik: pertsonak Euskal Herriaren eremuan hautatzea eta hortik kanpo hautatzea. Bi errealitate desberdin dira. Hemen ULMA ezaguna da, eta Taldeak eskaintzen duen interesa eta sendotasuna emanda dago dagoeneko, eta asko laguntzen du hautaketa egiterakoan. Baina guk hautaketa gehienak hemendik kanpo egin behar ditugu, eta hemendik kanpo ULMAren irudia ez da hain ezaguna. Beraz, handikap batekin abiatzen gara, eta hori beste tresna batzuekin gainditu behar dugu. Proiektu pertsonalean eta profesionalean sakondu behar dugu, Talde desberdina garelako erakusteko gauza izan behar dugu eta, horretarako, gure balio kooperatiboak garbi azaldu eta komunikatu behar ditugu.
- >> **XM:** Egia da gure ingurune naturaletik kanpo ULMAren irudia lausoago dagoela. Gure Talde proiektua beste esparru eta maila batzuetan ezagutarazteko ahalegina egin behar genuke, eta gure markaren inguruan kokatutako ekintzen eta jardueren bitartez.
- >> **JDF:** Denok dauzkagu arazoak hautaketak egiterakoan, hori begien bistakoa da. Hemen esan denez, jendea ULMAk balio diferentziala eskaintzen duenean etorriko zaigu. Esaten dugunean hurbileko

inguruneak ULMA baloratzen duela, esan behar da, bitxia bada ere, Gizarteari inkesta egin zaionean Oñati inguruko jendeak ULMAri buruzko balorazio txarra adierazten duela. Lanaren segurtasuna bai baloratzen dela, baina enpresak gizartean duen bilakaerari buruzko beste gai batzuk, esaterako, Ingurumena, bada, jendeak gaizki baloratzen du ULMA n. Gure pertsonak ULMA Taldean lan egiteagatik harro sentitu behar dute, ez lanaren segurtasunagatik, bestelako balio sozial batzuk daudelako baizik, ez lana hutsari lotutako balioak. Gai hori gehiago bultzatu behar dugu gure hurbileko ingurunean zein ez hain hurbilekoan. Enpresa proiektu hutsetatik haratago marka sustatzeko egin dezakegun guztiak indartu egingo du gure irudia. Jendea atxikitzearen gaia garrantzitsua da. Gure proiektua erakargarria izateko behar bezain interesgarria izan behar da eta, horretarako, beste erronketako bat ordainsariak dira. Hainbat mailatan ordainsari juxtu samarrak dauzkagu, eta hori gaintzen joan behar dugu. Ordainsaria ez da motibagarria izango, baina desmotibagarria izan daiteke.

>> **NA:** Bat nator hemen esandako gehienarekin. Sari ekonomikoaz gainera, ULMA Taldeak garatzeko eskaintzen dituen aukerak ere saltzen jakin behar dugu. Lidergoa, enpleguaren kalitatea, berrikuntza... horrelako ezaugarrietan oinarritutako irudi bat sortu behar dugu. Funtsean, ULMA Taldea lan egiteko leku ona izan dadila.

>> **AG:** Nik ekuazio bat planteatuko nuke bai erakartzeko bai atxikitze formula gisa, eta hau da: Balio Kooperatiboak gehi ordainsari egokia gehi merkaturako kokapen aitortua edo liderra. Jendeak hemen dagoeneko ezagutzen gaitu, badaki lider posizioetan gabiltzala, badaki kooperatiba garela, baina hemendik kanpo jendeak entzuten duen lehenengo gauza da "nola... lanean hasi eta gainera ordaindu egin behar dudala?", alegia, hor gertatzen da talka. Behin barrura

### ***“Ordainsaria garrantzitsua bada ere, pertsonak gehiago kizitzatzen ditu proiektuak”***

sartu eta gero jada identifikatu egiten dira.

>> **JDF:** Ematen den azalpena ez da izan behar "lanera etortzeko dirua ipini behar dut", aldiz, "enpresaren parte izatera igaroko zara". Egokia litzateke Euskal Herritik kanpo gure proiektuaren dohainei buruzko artikulua eta erreportajeak egitea.

#### **Bizitza pertsonala eta lanekoa bateratzea, gurea bezalako erakundeetan egin daitekeela uste duzue? Zer formula berri planteatu litezke?**

>> **AG:** Posible da eta zaila, aldi berean. Merkatuak malgutasuna eskatzen digu, bezeroari arreta ipini behar diogu. Ezin gara eredu itxietara joan. Ez dago gai honi buruzko formula magikorik, eta bururatzen zaidan gauza bakarra zentzudun lan egitea da.

>> **NA:** Gai hau, Negozioaren ikuspegitik, erronka da, baina aukera ere izan daiteke. Gizartea bilakatzen ari da, aldatzen ari da, eta enpresak ezin dira errealitate horretatik kanpo bizi. Espazio eta denbora esparru tradizional batean jarraitzen dugu lan egiten. Enpresa malgua bi eremuak ondoen parekatzen dituena da, baina horri mugak jartzea da egiazko erronka.

>> **JDF:** Zerbitzu enpresak gara, urtean 365 egunez eta egunean 24 orduz lan egiten dugu. Nola bateratzen duzu hori?

Irtenbide pertsonalak ematen goaz. Zaila ikusten dut gai hau bideratzeko tresnaren bat aurkitzea. Nire iritziz, negozio gisa ordutegian dugun malgutasunak, telelanaren kontzeptuak hainbat postutarako... horrek lagundu egiten du hainbat behar pertsonaletarako Gaiari adabakitxoak jartzen dizkiogu baina...

>> **XM:** Nik uste dut gai horrek obligazioa izan behar duela guretzat, korapilatsua bada ere. Kontseilu Orokorrean bere garaian batzorde bat eratu zen, gaiari buruz eztabaidatzeko, eta nire asmoa da hausnarketak eta ondorioak mahai honetara ekartzea, egokiagoa dela iruditzen baitzait.

>> **AA:** Oso gai konplikatu da, egoera pertsonalak oso desberdinak direlako eta arautegi bakarrek ez dutelako balio; ondorioz, malgutasuna, sormena, hori da bilatzen joan behar duguna. Interes pertsonalak eta enpresarenak uztartzea ere kontu zaila da, are gehiago kontuan hartuta bezeroaren exijentziak gero eta zorrotzagoak direla. Uste dut sortu diren kasuetan ezin hobeto erantzun zaiela, baina iruditzen zait ona litzatekeela erreferentzia izatea eta gai honetan aurretik joatea.

>> **JMB:** Bezeroari begirako zerbitzua aipatu da, eta badirudi horrekin pertsonen malgutasuna mugatu egiten dela. Guri dagokigunez, gainera, kapitalean inbertsio handia duen enpresa gara, gure makinek kostu handia dute, eta ahalik eta etekinik handiena atera behar diegu, eta hori egiteko gure jendeak hiru txandatan egin behar du lan, larunbatetan... eta horrek are gehiago mugatzen du malgutasuna. Gainera, energi kontsumitzaile handiak gara eta, askotan gaez lan egin behar dugula eta, gaia gehiago konplikatu da. Planteatu den ideia ona iruditzen zait: hemen esertzea eta gaia gehiago sakontzea, ea gauza garen aurrera egiteko eta ULMA Taldeko kolektibo desberdinei irtenbide hobeak emateko.

# gutarren argazkiak eta historiak

## Nicanor Valor. ULMA Construccióneko bazkidea

Nicanor gure garaiaren esploratzailetzat har dezakegu. Joan den abuztuan Islandiako urrutiko paisaia ikusgarriak korrituz disfrutatu zituen oporrak. Oraindik urtea amaitu gabe dagoelarik, hurrengo helmuga prestatzen ari da: Madagaskar. Ia urtero, egoerak aukera ematen duen guztietan, lekuri exotikoenetara egiten du joan-etorria. Udan Islandiako paraje zoragarrietan paseatu du bere bizikleta: ur urdineko aintzirak, labaz estalitako lursail zabalak, hegoaldeko hondar beltzeko hondartzak, itsasorainoko glaziarretako zerrendak, fiordo sakonak... eta Breidarlon lakua. *"4 km pista ibili eta gero, pixkana, glaziarrera inguratzen zara eta, ustekabean, ezerezetik laku bat ageri da. Iceberg txikiek, kolore nahasketak eta arnas daitekeen bakeak leku magiko bihurtzen dute paisaia, deskribatzen zail"*. Eguraldiak, ordea, ez zion abenturan lagundu. Temperatura  $-4^{\circ}$  eta  $12^{\circ}\text{C}$  bitartean ibili zen, nahiz eta Nicanorrentzat arazo nagusia haizea izan zen, ibilaldiaren erritmoa oztopatu eta planak aldarazi baitzizkion. *"Uhartearen iparraldea bisititzen ari nintzela, Husavik, denboralea hurbildu zen. Baleak bistaratzeko gomendatutako leku bat zen eta, beraz, ezin nuen aukera pasatzen utzi. Klimatologia zela eta, ontzian egiteko ibilaldi guztiak bertan behera utzi zituzten, baina txiripaz arrantzale erretiratu bat ezagutu nuen. Bere ontzian joateko eta joateko hainbeste esan zidan, azkenean ezin izan nuen ezetz eman. Olatuen mugimenduak, eguraldiak eta bestek egin zuten gainerakoa. Alegia, oso une txarra pasatu nuen, eta okerreana da ez nituela ditxosozko zetazeoak ikusi"*. Abuztuko egunak labur bilakatu ziren. Bidaiari txirrindularia jende berezi eta erakargarritzat hartu ohi dute bertakoek eta, ondorioz, integrazioa hobeto gertatzen da. Kasu honetan, jende nordikoa eta gainera uhartetarra izanik, *"jumelajea"* zail samarra izan zen. *"Berez pertsona hotzak ziren, urrunak, eta hori espero dezakezun gauza da, bizi diren lekua kontuan hartuta. Halere, bertan hainbat egun eman eta konfiantza hartzen duzunean, oso pertsona atseginak direla aurkitzen duzu, laguntzeko prest"*. Islandian errepideak ez dira ugari. Izan ere, errepide bakarra dago irla osorik zeharkatzeko bidea ematen duena. Horregatik, Nicanorrek errepide horretan ekin zion ibilbideari, basamorturantz, Kiolur-eko bidean barna. *"Oro har ez dut aurrez zehazten egunean zenbat kilometro egin behar dudan. Gogoaren arabera ibiltzen naiz, eguraldiaren arabera, parajea ikusgarria den, ibilbidea... eta jakina, nire egoera fisikoari erreparatzen diot. Egun batzuetan 150 km-tan eragin nien pedalei, eta beste batzuetan ez nintzen 40ra iritsi. Argi eduki behar da garrantzitsuena ez dela helmuga, bidaia baizik"*. Madagaskar du hurrengo jomuga, bere nahia Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika bizikletaz korritzea bada ere. *"Oraingoz ez dago horrelako bidaiarik ordaintzeko modurik, ezinezkoa baita egitea lanean ari zaren bitartean. Baina sinetsi nahi dut, egunen batean, proiektua errealitate bihurtuko dela"*.



## PRECINOX; lehen sei hilabeteko balantzea

Dagoeneko sei hilabete igaro dira joan den maiatzaren 22an Precinoren lehendabiziko pieza egin zenetik. Hastapen gehienetan bezala, jardueraren hasieran arazoak izan ziren nagusi, lana baldintza desegokietan egin behar zelako, instalazioak amaitu gabe baitzeuden eta langileek eraikuntzako gremio desberdinekin partekatu baitzuten espazioa. Haatik, presioa beharrezkoa zen, emaitzak ikusten hasteko beharra baitzegoen. Prozesuaren hasiera laser bidezko ebaketa makinak markatu zuen, zeina maiatzaz geroztik dagoen martxan. Halaber biltegi automatikoa, leuntzeko makina, hariztatzeko makina, zulatzeko makina eta tolesteko makina ere garrantzitsuak izan ziren, nahiz eta hasieran errendimenduak ez ziren onenak; gainerako prozesuak pixkana gehitzen joan ziren. Ekainaren amaierara arte lana bi taldetan egin zen: Oñatiko lan taldea: Zuzendaritza, eskaerak prestatzea, fabrikazio eta bidalketa aginduak, eta Legazpiko lan taldea: ZULEko langileak eta fabrikazioko arduradunak. Ekainaren amaieran sare bidez konektatu ziren Precinox eta ULMA Packaging, eta harrezkero talde osoak Legazpin egiten du lan. Une horretatik aurrera, definitutako prozesuak martxan jartzen hasi ziren eta, abio guztietan bezala, aldatzeko erabakiak unean bertan eta taldean hartzen ziren, ez baitzegoen gehiagorako denborarik. Eskaerak iritsi ahala iristen ziren langileak ere, zeinak aurretiaz hautatuta zeuden, eta horrela jarraitu zen, betiere entregean eta gaitasunaren arteko oreka mantenduz; hain zuzen ere gai horrek tentsioa sortu zuen hainbat unetan. Instalazioak amaitzeari dagokionez ere, hartu beharreko erabakiak hartzen joan ziren. Asko ahalegindu eta gero, irailetik aurrera jada baldintza ezin hobeetan lan egitea

lortu zen. Gaur egun, jarduera espero baino handiagoa da, izan ere, hasiera hilabete batez atzeratu bazen ere, hazkundera planifikatu zena baino handiagoa gertatzen ari da. Une hauetan enpresa 2008. urteari batez beste dagozkion eskaeretara hurbiltzen ari da eta, eskaera horren ondorioz, Precinox aurreikuspenen gainetik dago: 31 pertsona daude plantillan, eta urtea amaitu aurretik beste 3 kontratatuko direla espero da. Horrenbestez, datorren urterako egindako aurreikuspenek negozio planean jasotakoak gainditzen dituzte, 4,5 milioi €-tik gora eta 40 pertsona izango baitira. Hori guztia ikusirik, kalkula daiteke hemendik 5 urterako pentsatu zena soilik 4 urtean lor daitekeela.

### Arrakastaren gakoak

Fernando Gorostidiren iritziz, hauek dira Precinoren arrakastaren gakoak:

- Hasi beharreko langileak zorrotz hautatzea: apirilean urte honetarako plantillaren zatirik handiena hautatu zen: sektorean esperientzia handia duen jendea, eta jarduera berri bati egiteko beharrezko ezaugarriekin.
- ULMA Taldean partaide izateko gogoak: beste enpresa batzuetan gehiago kobratzen zuten hainbat pertsona proiektuaren parte izatera etorri dira.
- Talde kudeatzaile sendo eta elkartua: enpresa bat abiarazterakoan beharrezkoa da erabakiak azkar eta adostuta hartzea, betiere proiektuaren ikuspegiarekin bat eginda.
- Jardueraren kokapen fisikoa: ez dirudien arren, oso alderdi garrantzitsua da, eta hazkunderaren abiaduraren faktore nagusietakoa, langileen %90 Goierritik baitator. Langileek esperientzia handia dute, eta proiektu kooperatibo batean sartzen dira, galdaragintzaren sektorean ohi ez bezala.
- Inbertsioak hautatzea eta ezartzea: alderdi honetan merkatuko onena hautatu da, eta horrek fruitua eman du.
- Hasieratik bezero bat edukitzea, ULMA Packaging: horrelako ezaugarriak dituen proiektu bat ezin da aurrera atera aurreikusitako hazkundera segurtatzeko gai izango den bezerorik ez badago, hasierako bi urteetan behintzat.



FERNANDO GOROSTIDI  
PRECINOXeko zuzendaria



## Olatz harana

### Kostako bidean



Olatz harana berezitasun geologikoa da: itxia eta errekarik gabea, baserriak goragunez eta lapienez inguratzen ditu. Bide klasiko batek zeharkatzen du eta, Arnoate lepo mitikotik Bizkaia aldera, Donejakueko ibiltariak Ziortzako kolejiatarantz eramaten ditu. Mutrikuko kostaldetik pauso batera, itsasoak epeldutako aireak ferekatuta, Olatzek mikroklima bat gordetzen du, Bizkaian Bakion bezala, limoiondoak eta beste espezie exotiko batzuk haztea ahalbidetzen diona. Mutrikutik iritsiz gero, baserriz zipriztindutako ibar itxi batean sartzen da, basa haziendaren zaindaria. Horixe du ikur, eta baita bere ur guztien ihesbide diren dolina sakonak ere. Olatza autoz iritsi gaitzeko, eta bertan ekin bideari, baina Kalbario gainetik ere oinez ailega daiteke, izen bereko ermitatik sartuta. Ermitatik jaisten den bidearen parean, errepidearen

beste aldetik jarraitu behar dugu, baserri artean gora, eta sigi-saga lbiri auzoaren ondoko leporaino. Beste aldean Mutrikutik Olatzera datorren bidera jaisten da, eta berehala ibar barnera. Olatzen garai batean 33 baserri ere izan ziren, baina egun dozena bat baino ez da geratzen, maldetan kokatuta, askotan haitzari berari atxikita. Haranaren oina presidituz San Ignazio ermita dago, erpin batean jarrita, non lurra bera ere hondoratzen den. Ermitaren azpian, amildegi iritsiezin batean, Kobaldeko dolina dago, eta horko galeria misteriosuetan barna murgil eta ihes egiten dute haraneko ur guztiek. Ermitatik Donejakue bidean gora doan bidean igo gaitzeko, Kostolako lepo ederreraino eta Arnoateko bentaraino. Berehala bidea banatu egiten da, eta Donejakueko bideko seinaleek lagunduko digute norabide

zuzenean jarraitzen. Pinu luzez jantzitako baso itxi batean gora, sigi-saga itxiak marraztuz, azkenean Kostolako lepora iritsi arte, izen bereko baserriaren gainean. Balkoi bikaina da, alde batetik kostaldera begira, eta bestetik Bizkaiko mugako mendietara, Oizko kordaletik Lea-Artibaiko muino apaletara. Lepotik, ezkerretara biratuta, pinudi arteko pista batetik abiatuko gara Basarteko maldaraino, Arnoate lepo mitikora jotzeko. Bertan eraikin miragarria, ateburuaren aurrean 1889ko data adierazten duen mugarri bat duela, Elgoibar, Markina eta Mutriku batzen diren puntuan: antzinako paso garrantzitsua izan zela gogorarazten digu horrek, kostaldea eta Bizkaiko barnealdea lotzen zituen. Diotenez, Arnoaten hainbat belaunaldiz petrikiloak izan ziren, eta beste haranetako jendeak ere bertara jotzen ei zuen. Ateburuko

lerroari begiz jarraituta Izarraizko mazizoa ikusiko dugu, kordala kostaraino luzatuta. Kostola eta Olatzera itzultzeko ezkerretara har daiteke, Arnoateko garbitegi txiki eta iturriaren ondoan aurrera doan bidean aurrera, estela historikoa zaintzen duen Ameikurutzeraino. Pinu artean Kostolaraino itzuliko gara gero, lehen egindako bidean alderantziz.

#### BIDAIA GIDA

- **Iristeko:** Mutriku. Harana herri horren eta Arno mazizoaren arteko txoko gorde batean dago.
  - **Denbora:** 1 h joateko, Santakutzetik haran barreneraino. Olatzetik Arnoatera iristeko 1 h 30 min. behar da.
  - **Aholkua:** Olatzetik Kostolako leporaino bidea hormigoiz estalita dago. Gero, Arnoateraino, lurlegarrezko mendi pista da.
- Informazioa: [www.mutriku.net](http://www.mutriku.net)



#### BISITA; Sasiola eta Astigarribia

Kalbarioko portuaren oinean, Deba ibaiaren ertzean, ibai trafikoaren bi mugarri garrantzitsu daude: Sasiolako komentua eta Astigarribiako San Andres eliza. Sasiolan ibi zahar bat egon zen, eta bertan deskargatzen zuten ibaian gora Altzolako errenteriaraino merkantzia eramaten zuten pinazek. Deba ibaiko Ibai portuaren beste puntu bat Mollatxua zen, Astigarribian, eta han Arnoateko pasotik Bizkaia zihoan bideari lotzen zitzaion. Ibaitek bertatik galtzada bat abiatzen zen, Jauregi, Etxezabale eta Astigarribiako Dorreko baserri gotikoen azpitik. Horien aurrean, San Andresen eliza Gipuzkoako harribitxi erlijioso zaharrenetakoa da. Hasierako tenplu bisigotikotik leiho bat gordetzen da, atzeko absidean; haren gainean tenplu erromanikoa eraiki zen, eta horretatik aldea zaintzen duen Kristoa ikus daiteke. Tenpluko gangak itsas zurgintzarekin lotu ohi den zurezko armazoi berezi batean bermatuta daude.

## **Gurea bezalako erakundee- tan bizitza pertsonala eta lanekoa batera daitezkeela uste duzu? Zure ustez, zer formula planteatzea litezke?**

*Atal hau hobetzeko, gauza bat proposatu nahi dizugu: bidali atal honetan planteatuta ikusi nahi zenituzkeen gaiak edo galderak; [begira@ulma.es](mailto:begira@ulma.es)*



**MARÍA SENDÍN**  
ULMA Orga Jasotzaileak  
**“Jendea motibaturik badago,  
errendimendu handiagoa du”**

Ados nago, bai, agian gure erakunde ezin dira lanpostu guztietan lana eta familia bateragarri egiteko formula hauek aplikatu, lanpostu batzuen ezaugarriak ez baitute aukera hori ematen; halere, lanpostu askotan egin daiteke. Nik proposatzen ditudan formulak, seguru aski, lanaldia hasteko edo bukatzeko ordutegian malgutasuna edo lan orduak egunean zehar nahi den moduan banatzeko askatasuna duten gehienek eta eskoletako oporraldietan ordutegi bereziak ezartzeko aukera duten gehienek buruan dituzten berberak dira. Izan ere, lan baldintza horiekin produktibitatea handitzeko behar besteko lana egin dezakete, murrizketa horrek etxekoekin gehiago egoteko ematen dien aukera izateaz gain. Gure erakundera bueltatuz, badago gauza bat neuri zuzenean eragiten didana eta bat ere ondo ikusten ez dudana: mundu guztiak, geuk ezik, medikuarengana/espezialistarengana joateko orduak dauzka, eta horregatik geuk denbora hori etxekoekin egoteko dauzkagun orduetatik atera behar dugu nahitaez. Beraz, konturatu gaitzen zein den arazoa, eta etorkizunaz arduratu gaitzen eta ez gaurkoaz edo epe laburrera onurak lortzeaz. Enpresa batean langileak motibatuta eta pozik badaude eta lanak asetzen dutela sentitzen badute, gehiago emango dute lanean eta absentismo gutxiago egongo da, eta, ondorioz, enpresak gehiago lortuko du eta emaitza hobek izango ditu. Abantailak, beraz, asko dira, dituen desabantailen aldean.



**MIGUEL ANGEL GURIDI**  
ULMA Agrícola  
**“Posiblea bai, erraza ez”**

Baietz uste dut, baina zenbait kasutan ez da kontu erraza. Bakoitzaren egoera bereziaren arabera, helburu eta gorabehera pertsonalak aldatu egiten dira eta, zein etapan gauden, helburu eta behar horiek ez dira berberak. Nabarmena da gizarteak denbora gutxian izan duen bilakaera handiak gai askotan eguneroko elkarbizitzan eragiten digula. Bilakaera eta gertatu diren aldaketa horiei aurre egiteko, gizartea prestatu eta antolatu egiten da. Era berean antolatu behar dugu geuk ere, maila pertsonalean zein lanean, aldaketa horien eraginak ahalik eta ondorio txar gutxien izan dezan gure elkarbizitzan, bilakaerak ekarritako aldaketetara ahalik eta ondoen moldatzeko. Laneko bizitzarekin, eta horrek gure bizitzan denbora tarte handia hartzen du, gure helburu pertsonalak asetzeko alde garrantzitsu eta beharrezkoenak bat betetzen dugu, alde ekonomikoa. Horregatik, kontuan hartuta laneko bizitzan garrantzi handia duela, nire iritzia da oro har aukerak baditugula (egutegiak, ordutegiak, baimenak...), hein batean behintzat, laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateratu ahal izateko. Halere, zenbait kasu edo egoeratan, aukera horiek (egutegiak, ordutegiak, baimenak...) ezin dira modu berdinean aplikatu, eta hainbat lanpostuk, beren ezaugarriengatik, aukera pertsonalizatuagoak eskatzen dituzte. Kasu horietan ulertzen dut bateratzea zailagoa izatea. Beste gai bat da, eta gaur egun asko gertatzen da, hainbat arrazoiengatik (arrazoi pertsonalak, lan merkatua...), gure lantokietara joateko bizi garen lekutik urrutia samar mugitu beharra; edo baita ere, eta antzera gertatzen da, hainbat egoera eta arrazoiengatik gure lantokitik urrutira mugitu beharra, batzuetan hainbat egunez, edo hilabetez... gure bizitokitik kanpo. Egoera horietan hain zuzen ere, urrutiratzeak berak, edo ohiko inguru eta etxebizitzatik kanpo ematen dugun denborak, oztopatu egiten du bi arloak guztiz bateratzeko bidea. Ulertzen dut egoera horretan bizi diren pertsonentzat oso zaila izango dela bi arloak bateratzea. Ez dago formula magikorik. Formula berek balio dute bizitza pertsonalerako zein laneko bizitzarako: Gure agenda pertsonala eta lanekoa behar besteko aurrerapenez planifikatzea, lehentasunak ezartzea, planifikatutakoa zorrotz betetzea. Ekintza plan bat egitea, behar bezala delegatzea. Ezinbestekoa.



**GURUTZE MURUA**  
ULMA Construcción  
**“Kontuan hartu behar dira  
ikastetxetako sartze eta ir-  
teera orduak”**

Bai, posible dela uste dut, erraza ez bada ere, postuaren edo eginbeharraren tipologiaren arabera. Ulertzen dut kooperatibarentzat ahalegina dakarrela eta, beraz, ulertzen dut bazkideak edo langileak ere malgua izan behar duela bere lanpostuan sor daitezkeen behar puntualekiko. Plantea daitezkeen formulei dagokienez, nire iritziz, konponbiderik onena lanaldia murrizteak ematen du, sartzeko eta irteteko orduak eta eskolakoak edo haurtzaindegikoak moldatzeko aukerarekin batera. Horrela, umeak eskolara eramane eta jasotzeko aukera duzu, eta zure lan orduak betetzeko, inor kontratu behar izan gabe (jakina, beti behar da ordezko norbait haurrak gaixotzen diren egunetarako eta abarretarako).





**NICOLAS GARCÍA**  
ULMA Forja

**“Pertsonengan konfiantza izan behar da”**

Bai, bateratzea posible da. Kontua da ordutegiak langileen beharretara egokitzeko malgutasuna, bateratze hori errealitate bihurtzeko. Horren oinarrian pertsonenganako konfiantza egon behar da, eta ULMA Forjan hori praktikatzen da. Laneko eta etxeko bizitza hobeto bateratzeko alderdiak izan daitezke, nire egoera zehatzean, Antzuolako haurtzaindegiko lekuak gehiagotzea, kupoa oso urria denez, alaba Bergarara eraman behar baitut. ULMAren aldetik baino gehiago, erakunde publikoek hobetu behar dituzten alderdiak ikusten ditut nik.



**HIBAI ZABALA**  
ULMA Handling Systems

**“Bezeroak urteko 365 egunetan zerbitzua eskatzen du”**

Gurea bezalako zerbitzu enpresetan geroz eta gehiago dira urteko 365 egunetan zerbitzua eskatzen duten bezeroak, eta eskaera horri erantzuna emateko ordutegi bereziak egiten dira. Kanpoan egoten den jendeak ere ordutegi bereziak edukitzen ditu, etxetik at lo egiteaz aparte. Ezinezkoa da zerbitzu edo lan horiek egitea eta bizitza pertsonalean ez nabaritzea, nahiz eta horrenbeste ez nabaritzeko (konpentsatzeko) formulak bilatu beharko diren. Zerbitzu horiek ematen dituzten pertsonak “sari” antzeko bat izan beharko lukete, ekonomikotik aparte, beraien bizitza pertsonala asetzeko. Ez dakit zein den formula, baina deskantsatzeko aste bat, ordutegi murriztua...



**AMAIA RAMOS**  
ULMA Hormigón Polímero

**“Lanaldia murrizteko eskaeren ondorioz postu aldaketarik ez litzateke izan beharko”**

Posible da, kontuan hartuta maila pertsonalean eta profesionalean gauza askori uko egin behar diezula, eta egunerokoan sortzen diren arazoak bideratzeko laguntza behar duzula, bestela, ez litzatekeelako aukerarik izango bi arloak bateratzeko. Egoera asko hobetuko litzateke lanaldia murrizteko eskaeren ondorioz postua aldatu behar ez izate soilarekin. Beste gauza bat litzateke, zailagoa, formula komun bat bilatzea laneko ordutegia eta ikastetxeetako bateratzeko. Ildo horretan, Iberdrolak aurrekari bat finkatu du, gurea bezalako erakunde batean gogoeta eginarazi behar ligukeena. Ideia ona litzateke Taldeak zerbitzu lagungarri bat eskaintzea oporretan –batez ere abuztuan, haurtzaindegiak itxi egiten baitira–, nola edo hala bi eginkizunak, lana eta haurrak zaintzea, bateratu ahal izateko. Onena zerbitzu hori uztaileta eta irailera ere zabaltzea litzateke, data horietan ez delako eskolarik izaten, eta zailagoa izaten delako familia eta lana bateratzea.



**ROCIO LERIDA**  
ULMA Packaging

**“Lan ordutegiak eragin handia dauka gure osasunean, ongizatean eta motibazioan”**

Benetan zaila da bi eginkizunak bateratzea. Famili bizitzak eta lanekoak leku garrantzitsua betetzen dute gure bizitzetan, eta gure eguneroko esfortzua eskaini behar diegu. Ama langile askok uneren batean edo bestean familia zaintzeko denbora faltan izan dugula sentitu dugu. Horregatik, lanaldi trinkoko eta lanaldi erdiko postuak sortzea eta ordutegiak malgutzea oso-oso oinarritzko elementuak dira oreka lortzeko. Lan ordutegiak eragin handia dauka gure osasunean, ongizatean eta motibazioan. Delegazioetan aldatzeko aukera gutxi dagoela aurkitzen dugu, lanpostuak eta ordutegiak oso mugatuak direlako. Nire egoera zehatzean, bigarren umea jaio eta gero, administrazioko beste postu bat sortzeak lanaldi murriztean sartzeko aukera ekarri zidan (bestela ezinezkoa izango zen), eta horrek ahalbidetzen dit gaur egun lanean jarraitzea eta, aldi berean, seme-alaben heziketan aktiboki parte hartzea.

## ULMA ekipamendu berria txirrindularitzarako



ULMA Taldeak txirrindularitzako elastikoen diseinu berria atera du horrelakorik nahi duten bazkide eta langile guztientzat, eta Lizarralde Kirolak etxearekin ados jarri da jantzi horiek merkaturatzeko. Jantziari buruzko edozein kontsulta egiteko, jo *Lizarralde Kiroletara*, Oñatiko Olakua kalean (tel.: 943 782986 edo Arrasateko 943 799147).

## Lankidetzaren hitzarmenak

ULMA Taldeak, esponsorizazio estrategiaren barruan, lankidetzaren hitzarmenak egiten ditu Guggenheim Bilbaorekin, Arrikruz-Oñatiko Kobak erakundearekin eta Kirolgi Fundazioarekin. Hitzarmen horiek hainbat abantaila promozional izateko aukera ematen diote ULMAri. Guggenheimi eta Arrikruzeko Kobei dago kienez, 6 eta 5 pertsonako taldeak joateko txartelak ditugu, hurrenez hurren. Kirolgiren kasuan, sartzeko paseek Gipuzkoako ia kirol guztietarako balio dute. Kasu guztietan, gure bazkide eta langileek ULMA Taldeko Zerbitzu Zentraletan eskatu ahal izango dituzte paseak, betiere eskuragarri baldin badaude.

ERRETIROA HARTU DUTENAK: ULMA Taldean 2007ko irailaren 1etik abenduaren 31ra erretiroa hartu dutenak.



Luis M. Lasagabaster



Alberto Biain



Jesús Ugarte



José Andrés Leturia



Santos Zubia



Francisco Txintxurreta

Jesús Erostarbe

*Eskerrik asko guztioi,  
eta goza dezazuela! Zorionak*

**ANIMATU ETA BIDALI  
ZURE IDEIAK;  
begira@ulma.es**

Eta gainera, beti bezala, gure iradokizun Kutxa ere badugu, zuen ideia eta iritziak jasotzeko prest;

**ULMA Taldea  
Zerbitzu Zentralak  
Garagaltza Auzoa 51 -  
P. K. 22.  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
Erref.: Begira  
Email: begira@ulma.es**

## Balio Kooperatiboen gehigarria

Begira aldizkariaren 16. zenbaki honetan gure Balioei eskainiko dizkiegun gehigarrietako bigarrena sartu dugu. Oraingoan **Partaidetza** izango dugu hizpide, eta gure hainbat bazkide eta langileren kolaborazioak dauzkagu.



## PORTALDE JAIO DA

Lagundu intraneta hobetzen!!

ETA PARTE HARTU MP3 BATEN ETA 3 USB-REN ZOZKETAN

ULMA TALDEAren intranet berrian zer aurkitu nahi zenukeen jakin nahi dugu.

Bidali zure ideiak! [portalde@ulma.com](mailto:portalde@ulma.com)

Abenduaren 21era bitartean hartutako iradokizun guztiak MP3 baten eta 3 USBren zozketan sartuko dira.



## Argazki lehiaketako irabazleak!



Hauak dira Hiriak eta Herriak argazki lehiaketaren zozketako 3 saridunak:



Edurne Vikuña  
ULMA Packaging  
(Gau bat landaturismoan)



Manuel Sánchez  
ULMA Orga Jasotzaileak  
(SPA saioa)



Javier Osa  
ULMA Construcción  
(Kanpin denda)

ii Eskerrik asko  
parte hartzeagatik !!

**pertsonen enpresa**  
*pertsonentzako enpresa*



**la empresa de las personas**  
*la empresa para las personas*

Grupo ULMA  
B° Garagaltza, 51  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel: 943 25 03 00 • Fax: 943 78 09 17  
[www.ulma.es](http://www.ulma.es) • [grupoulma@ulma.es](mailto:grupoulma@ulma.es)



**ULMA**